

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-12-23
EGUBAKOITZA
491. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



ENEKO AZKARATE

Martin Garitano | Ahaldu nagusia
**"Ez dut baztertzen
EAJk eta geuk bat
egitea Gasteizen ere"**

Diputatu nagusia pozik
aurrekontuak adostearren | 2

Aretxabaletako Bengoa harategiak
agur, urteetako ogibideari | 11



Ulmaren 50 urteak liburu
batean bildu dituzte | 21



Debagoieneko Tobera, antzerki
satiriko herriak xaxatzeko | 31



SANTAMAS, GABONEN ATARIAN

Atertzeaz bat, ehunka lagun atera dira kalera Arrasateko azokan eta herriko artzainek merezitako omenaldia jaso dute | 12-13



ASIER ALKORTA, MAIDER ARREGI, MIRYAM GALILEA

**URTARRILERA
ARTE, IRAKURLE!**

Hurrengo GOIENA urtarrilaren 9an,
astelehena, argitaratuko dugu.
Baina, lehenago, hilaren 30ean,
Debagoiena 2011 urtekaria jasoko
duzue etxean. Urte berri on!

**DEBAGOIENA
2011
URTEKARIA**



**32 "-KO
TELEBISTA**

**ASTILLERO
ERRETEGIA**

**+
Balentziaga museoa**



Zuretako ikus 31. orria

SINADURAK

Olentzero, aurren, eskian dator
OSKAR ELIZBURU | 6

Boloan bizitakoa, bolo-bolo
JOKIN BEREZIARTUA | 6

Ilusiozko eskutitzak
JON SUINAGA | 17

Ikastolak euskaraz
JABIER ALTUBE | 21

ETA barik
ANJEL BERGARETXE | 22

Zaindu zateze
XABIER ZUBIZARRETA | 40

Martin Garitano | Gipuzkoako diputatu nagusia

"Errauste plantaren aukera da dirua alperrik erretzea"

► Garitano pozik da Gipuzkoako bigarren indarrarekin, EAJrekin, adostu dituztelako aurrekontuak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Sei hilabete eman ditu Gipuzkoako erakunde publiko nagusiaren agintean, Foru Aldundian. Eta pozik dago Martin Garitano beragarra lortutakoarekin. Sei hilabetean lortu ditu bi akordio garrantzitsu: datorren urteko kontuak onartzea, jeltzaleekin, eta zerga politika aldatzeko konpromisoa, sozialistekin.

Zer egin zaizu gogorrena eta goziena Diputatu nagusi arguan eman dituzun sei hilabete hauetan?

Gogorrena, anonimotasuna edo intimitatea galdu dudala. Ederrena, gauza izan garena legez kanporatuta egotetik legezkoak izatera pasatzeko; hauteskuntzetara aurkezteko; irabazteko eta gobernua eratuta, bi akordio garrantzitsu lortzeko, bata aurrekontuen ingurukoa eta bestea fiskaltasunaren ingurukoa.

Gauza asko gertatu dira eta aukera izan duzu lekuko pribilegiatu izateko...

Hala da. Gaur egun, botoen %23 ordezkatzen dugu Gipuzkoan eta duela sei hilabete ia klandestinitatean geunden. Hainbat udalerrri kolorez aldatu dira... Bestetik, Aieteko Bake Konferentzia ere izan dugu, non eskatu zitzaizen ETari behin betiko su-eten iraunkorra iragartzea eta gobernuei urratsak eman zitzatela. ETarena gertatu da. Gobernuena oraindik ez. Baina, jendartearen presioari erantzunez, eman beharko dituzte urratsak. Bestelako egoera batean gaude, bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere. PPren boterea agoantatu beharko dute espainolek lau urtez.

Aurrekontuak onartzeko Osokoa egingo duzue egubakoitzean. Gusteratu geratu zarete onartuko dituzuen aurrekontuekin?

Bai. Aurrekontuak dira direnak eta egoera honetan egin zitezkeenak. Baina, pozik gaude, bereziki, ziurtatu dugulako Gipuzkoak datorren urtean kontuak edukitzea eta hori oso garrantzitsua da lurraldearen etorkizuna bermatzeko. Eta, baita ere, erakutsi dugulako Gipuzkoan posible dela lehen indarrak eta bigarrenak bat egitea eta gehiengo nabarmen batekin, elkarlanean, krisi gogor honetatik ateratzeko ahaleginean

jardutea. Pena izan da sozialistak batu ez izana.

Zein izan da irizpide nagusia aurrekontuak osatzerakoan?

Lehenengo ezaugarria izan da doikuntza. Aurreko gobernuek uste zuten erakunde publikoak zorpetu egin behar zirela, pentsatuz, diru publikoa inbertitu behar zela industria berpizteko. Ikusi dugu horrek ez dituela fruiturik eman. Eta krisia areagotu egin dela. Edozelan ere, ez diot horren errua aurreko Foru gobernuari bota nahi. Baina, zorpetze maila horrek behartu gaitu doikuntzak egitera eta errealismoz jokatzera, pentsatuz, datorren urtean zenbat diru jasoko dugun, aurreikuspen zehatza eginez, zorrari aurre egiteko zenbat ordaindu behar dugun... Arriskua litzateke zorpetze maila handia izanda, itotzea eta aurrekontua zorraren interesak ordaintzeko egin behar izatea, erakundea blokeatzera edo kiebra egitera ailegatuz.

Zeri eman diezue lehentasuna?

Aurrekontuaren beste ezaugarri bat da ongizate zerbitzuetan ez dela ekarriko murrizketarik. Eta, horretaz gain, parte-hartzeari, migrazioari, euskarari, berdintasunari, giza eskubideei... eman diegula lehentasuna, Diputatu nagusiaren ardurapeko bihurtuz. Beste partida guztietan doikuntzak egitera behartuta sentitu gara.

Adegik kritikatu ditu aurrekontuak. "Krisitik irteteko atzerapausoa" direla dio Eduardo Zubiaurrek.

Ez dut uste horretan Eduardo Zubiaurrek arrazoa duenik eta,

esango nuke, Zubiaurrek berak, benetan, ez duela esaten duena sinesten. Gertatzen da, batzuetan, politikan, rol batzuk bete behar direla hedabideen aurrean. Adegik ondo ezagutzen du Gipuzkoaren industriaren errealitatea, baita Foru gobernuak onartuko duen aurrekontua eta, hori kontuan izanda, ezin daiteke esan aurrekontuak atzerapena direnik krisitik irteteko.

EAJrekin 10 milioi euroko partida onartu duzue enpresei laguntzeko.

Zein da helburua?

Enpresei laguntzeko dirua bi eratarata bana daiteke. Bata da krisian, hondoa jota, dauden enpresei laguntzeko banatzea, zuloak tapa ditzaten. Bestea da diruarekin laguntzea berrikuntza dihardutenei, lanpostu berriak sortu behar dituztenei... EAJK egindako ekarpenarekin, bigarren helburu honetarako sortu dugu 10 milioi euroko partida.

Zaborren kudeaketa izan da jeltzaleekin lortutako akordioaren oztoporik nagusia. Zer da adostu duzue-na?

Sei hilabete epea hartzea, hau da, orain arte sinatutako kontratuek baimentzen duten epea, azterketa sakon eta osoa egiteko hondakinen kudeaketaren inguruan. Orain arte, eztabaida politiko latz baten erdian egon da hondakinen kudeaketa. Baina beste parametro batzuetan aztertu behar da arazoa. Zenbat hondakin sortzen dugu? Zenbat sortu behar dugu? Zenbat birziklatu? Zenbat biometanizatu? Eta hori guztia egin ostean, zenbat geratuko litzateke hondar moduan eta zer egin beharko genuke horrekin? Orain arte kontrakoa egin da: aurreikusi sekulako erraustegia, sekulako labea. Baina labe horri jaten eman beharko diogu, ezta? Ez dugu lortuko aurreko prozesua. Hori da kontua. Guk lehenengo nahi dugu ahalik eta gehien birziklatu eta geratzen den hondar horrendako formulak, soluzioak topatu. Sei hilabete hartuko ditugu horretarako.

Batzar Nagusietan hartuko da zaborren kudeaketaren gaineko azken erabakia?



Martin Garitano Arrasateko kaleetan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Batzar Nagusietan, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan eta udaletan. Bakoitzak bere eskuduntzak ditu eta bakoitzak erabiliko ditu bere eskuduntzak eztabaida egiteko eta erabakiak hartzeko. Partzuergoa ez zuen Bilduk sortu, EAJK baizik; hark eman zizkion eskuduntzak.

Zubietako errauskailua egingo da?

Espero dut ezetz. Espero dut erabakiko dugun hori ez izatea errauste planta egitea. Baina erabakia zabalik dago. Horretarako hartu ditugu sei hilabete.

Errauskailuaren inguruan aurreko agintaldian onartutako konpromisoak ez zaituzte lotzen?

Kontratu batzuk ditugun neurrian bai, ze kontratu horiek bete edo bertan behera laga beharko ditugu eta bertan behera utziz gero, bankuekin eta enpresekin negoziatu beharko dugu.

Birziklatzen ez den zabor hondararen gestiorako ze planteatzen duzue?

Birziklatu, konposta egin eta biometanizatu. Eta hiru prozesu horiek diru iturri ere badira udalendako. Geratzen den hondarra da %10 edo %15 eta horretarako ez dugu behar errauskailurik.

Zer behar da?

Adibidez inertizatzea. Badira formula batzuk zabor hondarrik lurperatzeko.

Errauste plantaren ordez Bilduk proposatzen duen zabor hondakinen kudeaketa merkeagoa da?

"Aztertzen gabilza herri aurreratuetan ezarri duten bineta soziala"

"Ilusio handia daukat UNEDen permuta sinatzeko eta aurrera egiteko"

Bai. Zubietako errauste planta egiteko 400 milioi euro behar dira. Gure erdua merkeagoa da eta, gainera, dirua sortzen dugu zaborren tratamendurekin. Errauste plantaren aukera da dirua erretea.

Pasaiko kanpoko portuaren aurka-ko posizio irmoari eusten diozue?

Bai, eta uste dut geroago eta gehiago garena uste dugunak proiektu horrek ez daukala ez hankarik eta ez bururik. Geroago eta alderdi gutxiagok defenditzen dute, eta, defenditzen dutenek, geroago eta adore gutxiagorekin.

Pasaia barrurako zer proposatzen duzue?

Beste kontu bat da hori. Erabat beharrezkoa da barruko kaiaren biziberritzea, baina ezin daiteke lotu kanpoan portu berria egitearekin. Barruko badia biziberritu behar da.

Barruko badia biziberritzeko dirurik badago aurrekontuetan?

Bai. Lehentasunetako bat da. Jende asko bizi da hor. Urteetan ezer egin ez dutenek, guri, orain, sei hilabetean dena egitea eskatzea beste kontu bat da.

Zerga politika aldatzea adostu duzue sozialistekin. Samurra izan da akordioa?

Erraza ez da izan, baina hasieratik ikusi genuen adostasun puntuak bagenituela zerga politikari dagokionean. Datorren urtean beste urrats batzuk eman nahi ditugu. Gure erdua progresiboagoa eta aurrerakoiagoa da, baina lortu dugunarekin oso pozik gaude.

Zer lortu nahi duzue zerga politika aldatzearekin?

Batetik, diru gehiago jasotzea; bigarrenik, diru hori, gehien duenari eskatzea. Hirugarrenik, eredu justuago batera jotzea; laugarrenik, amaitzea iruzur fiskalarekin. Uste dugu lotsagarria dela gaur egun dagoen iruzur fiskalaren poltsa. Horri aurre egin behar diogu. Gizarte geroago eta justuago bat eraiki nahi dugu.

ELAk kritikatu du zuen zerga politikaren erreforma. Besteak beste, dio "ez dela nahikoa".



ra zela ordaintzen ditugun errepideak. Ez gara bidesarien aldekoak, baina errepideak eta zorrak ordaindu egin behar dira. Horretarako, aztertzen gabiltza Europako herri aurreratuenera ezarri duten bineta soziala.

Aurreko agintaldian garraio publikoa bultzatzeko Bus Rapit Transit delako planteatzen zuen Diputazioak Debagoienerako. Proiektua baztertu duzue?

Ez dugu erabat baztertu, baina ez dago gure lehentasunen artean. Lurraldebusen txartel bakarrekin ari gara lanean.

Bergarako UNED lekuz aldatzeko permuta planteatzen du Bergarako Udalak. Zein da horren gainean Bilduren iritzia?

Lehen aldiz, inplikatu guztiak ados gaude. UNED, Diputazioa eta Bergarako Udala sintonia bertuan gaude. Legealdi honetan amaituta behar du honek denak. Erret Mintegian obra batzuk egin ziren eta erabaki behar da zela konpentsatzen den permutarekin. Datorren astean daukagu batzarra UNEDeko Patronatuan. Gure asmoa legealdi honetan UNED Arrizuriaga jauregian ikustea eta Errege Mintegian museoa eta Udal liburutegia ikustea izango litzateke. Obrak esleitu eta lanak hasi orduko datorren urteko iraila izango da, baina ilusio handia daukat permuta hori sinatzeko eta aurrera egiteko.

Euskara eta euskarazko hedabideak estrategikoak dira Bildurendako? Bai, beti izan dira eta ez dugu iritiz aldatu Diputazioan. Aurre-

kontuetan, lehentasunen artean dago euskara.

Zenbateraino eman dio garrantzia Bilduren Foru gobernua arlo sozialari?

Ematen ditugun laguntzak ez ditugu murriztuko eta, bestalde, plaza berriak sortuko ditugu zaharren egoitzetan. Gipuzkoan 900 nagusi daude zaharren egoitzetan sartzeko. Aurrekontuaren erdia gizarte zerbitzuetara doa.

Krisiagatik, erakunde guztien egoera ez da onena, baina udal batzuen dramatikoa da. Zer egingo du Foru Aldundiak Udalei laguntzeko?

Foru funtsa da gure bitartekoa. Udalerri bideratzen diegun dirua. Aurten puntu bat igoko dugu. Ezin dugu gehiago igo.

Biktimen mina konpontzeko agiria eman zuen argitara asteburuan Gernikako Akordioak. Akordioa sinatu ez duten gainerako alderdi gehienek, ordea, kritikatu egin dute agiriak dioena.

"Gasteizko legebiltzarrak ez du egungo errealitate politikoa islatzen"

"Ez dut erabat baztertzen EAJk eta geuk bat egitea Gasteizen ere"

Gai delikatua da. Mina ezin da konpondu. Norberarena da. Eskatzen du besteari errespetua. Gernikako Akordioak aitortzen du alde askotan pairatu dutela mina. Eta mina pairatu dutenek guztion errespetua behar dute. Aurrera egiteko, jendartea normalizatzeko, guztiok egin behar ditugu aurrerapausoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ze ekin egingo du berradiskidetzea bultzatzeko?

Zuzendaritza nagusi bat daukagu giza eskubideen eta memoria historikoaren gainean lan egiteko. Egunerokotasunean egin behar dugu lan. Normaltasun politotik etorriko dira berradiskidetzeak.

Lopezek hauteskundeak aurreratu dituela uste duzue?

Ezetz dio, baina zilegi izango litzateke gaur egungo egoera politikoa erabat ezberdina delako. Gasteizko legebiltzarrak ez du egungo errealitate politikoa islatzen eta duintasun politikoa bada ere, hauteskundeak aurreratu beharko litzuke Lehendakariak.

Bilduk eta EAJk Gipuzkoan lortutako akordioa etorkizunean Gasteizen lor dezaketenen aurrekari moduan uler dezakegu?

Ez dakit. Markel Olanorekin argazkia egitea ez zait batere kostatzen. Ez dakit Bizkaian Iñigo Urkulluk gauza bera pentsatzen duen. EAJk badauzka hainbat arima eta une bakoitzean zeinek agintzen duen ez da samurra jakitea. Baina ez dut erabat baztertzen EAJk eta geuk bat egitea Gasteizen ere.

Egia da. Ez da nahikoa. Lehen urratsa da. Ez dugu astirik izan gehiago egiteko. Egingo dugu. Badira beste zerga batzuk, sozietateen ingurukoak, esaterako, datorren urtean berraztertu nahiko genituzkeenak. ELAk bere papera egin du. Kontuan izan beharko genuke, halere, guk egindakoa nahikoa ez bada ere, Araban eta Bizkaian ez dutela ezer

egin. ELAren lehen protesta gure kontra izatea xeble samarra bada.

Bidesariei dagokienez, Etxegaraten ez jartzea erabaki duzue, baina, bai, ordea, Deskargan. Zergatik batean ez, eta bestean bai?

Erabaki dugu ez egitea errepide gehiago. Bidegik 900 milioi euroko zorra dauka. Horrek behartzen gaitu gelditzera eta berrazterte-

NORK BETETZEN DITU ZURE DESIOAK?



Ondo pasa, urtarrilaren 5era arte, zuretzat antolatu ditugun **HAURRENTZAKO TAILER ETA ANIMAZIOEKIN.** Eta sartu **GURE SNOWBALL ERRALDOIAN.**

Eta urtero bezala, **OLENTZERO** eta **EKIALDEKO ERREGE MAGOEN** bisita zoragarria jasoko dugu.

Kontsultatu informazio osoa eta ordutegiak honako helbidean: www.el-boulevard.com

Ilusioz beteta. ZUTAZ beteta.





Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.

Jatetxe Gida



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, saheskia, bildotsa, ... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

Ekonomia %0,4 haziko da, Euskadiko Kutzaren arabera

Zor subiranoaren krisiaren eboluzioa konponduz gero, 2012ko erdialderako egoera hobetu daiteke; gobernuaren neurriek ere eragina izango dute

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Euskadiko Kutzak aurreikusi du datorren urtean euskal ekonomiak hazkunde txikia izango duela, baina hazi egingo dela; eta langabezia tasa, urtean, batez beste, %12,5ekoa izango dela.

Atzo eman zuen aditzera Euskadiko Kutzako Ikerketa Departamentuak 2012. urterako aurreikuspen eta egoera ekonomikoari buruzko txostena. Euskadiko Kutzako zuzendariorde Xabier Egibarrek eta Ikerketa Departamentuko zuzendari Joseba Madariagak aurkeztu zuten txostena Bilbon.

Bigarren honek esan zuenez, azken hilabeteetako egoera konplikatu da, zor subiranoaren krisiagatik eta Europar Batasunak izan duen erantzuna "behar zuen argia, azkarra eta zehatza

ez delako izan". Datorren urtean, Madariagaren hitzetan, zor subiranoaren krisiaren eboluzioa konponduz gero, 2012ko erdialdera "dinamismo ekonomikoa" egon daiteke; PPren gobernuak hartzen dituen neurri ekonomikoek ere eragina izango dute.

Honekin, Euskadiko Kutzak "itxaropen gutxiko" panorama

aurreikusten du hurrengo urterako, Euskadin 0,4%ko hazkundearekin.

Bestalde, langabezia tasa, batez beste, %12,5ekoa izango da datorren urtean eta Euskadiko Kutzaren aurreikuspenek diotenez, 2013 urtera arte-edo, %1,6ko hazkunde lortu arte, ez da langabezia murriztuko.

ESANAK

"Langabezia murrizteko, %1,6ko haziera lortu behar da"

JOSEBA MADARIAGA | ARDURADUNA

DATUA

12,5

LANGABEZIA

Euskadiko langabezia tasa %12,5ekoa izango da urtean, batz beste.



Coral Herrera, Arrasateko Kulturaten. | TXOMIN MADINA

Coral Herrera | Genero teorian aditua

"Matxismoa iraunarazten dute maitasunaren mitoek"

Astelehenean Arrasaten egindako hitzaldian maitasunaren mitoak izan ziren berbagai

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Mugarik Gabe eta Elkarheitzzen Gobernu Kanpoko Erakundeek antolatutako zinemaldi sozialaren barruan, Coral Herrera Giza Zientzietan doktore eta Genero Teorian adituak maitasun erromantikoari buruzko mitoei buruz egin zuen berba.

Zein mitoz ari gara maitasun erromantikoaren ingurukoei buruz berba egitean?

Printze urdinaren eta printzesa arrosarena bezalako inguruan; matxismoa eta ezberdintasunak iraunarazten dituzten mitoak dira. Euren oinarria da gizonak era batekoak direla eta emakumeak beste era batekoak, eta idealena dela kontrakoak izatea, gero guztiz osatu daitezke.

Mito horiek beraz, oraindik ere indarrean daude?

Bai. Antzinako Greziazetik hona mitoak berdinez dira baina pertsonaia ezberdinekin kontatuak. Egitura berbera da: gazteluan itxaroten dagoen printzesa eta salbatzera doan heroia, betiko zorionsu egingo duena. Askotariko bideekin helarazten digute hori. Hauek sinistu eta pertsona idealarekin amesten dugu; eta frustrazioa senti dezakegu ideal hori agertzen ez delako.

Hedabide eta pelikulek, esaterako, zein eragin dute?

Handia, batez ere neska-mutikoei kontatutako ipuinek; nagusitzean, maitasunari eta harremani buruzko ideia finkatuko dietelako. Planteatzen dute gizonak direla heroiak eta emakumeek itxaron egin behar dutela, ezkondu barik zorionsu izateko modurik ez balego bezala. Ezkontza eta bikotetik zerbait perfektua espero arren, errealitatea oso ezberdina da; hori diote dibortzio tasek.

Mendebaldeko kulturen isla dela esango zenuke?

Bai; oso kultura indibidualista da, zuk, nik eta bikoteak osatutakoa. Maitasuna zabalduko bagenu, eta konturatu afektua bikoteek ez ezik, senideek, lagunek eta bizilagunek ere ematen dutela, mundu atsegino batean biziko ginatkeela uste dut.

Nola eman buelta horri guztiari?

Beste era bateko heroiak aurkeztuz: neska eta mutila, biak protagonista, bakoitzak bere zaldia eramanaz. Frustratuta bagaude zer? Maitasuna zabaltea; ez pentsatzea pertsona bakarrak dena emango dizula, betirako zorionsu egingo zaituela; norbera bere erara da zorionsu.



Jose Luis Cantero, Ainhoa Sagarrirai, Aritz Arrieta eta Mari Carmen Barrenechea sozialistak. | AT.

Herritarrei atez atekoaren gainean galdetzea nahi dute sozialistek

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE

Bailarako sozialistek moziio berri bat aurkeztu dute. Alde batetik, sozialistek salatzen dute Bildukoek ozen esaten dutela parte hartzea dela euren ezaugarrietako bat, baina gero, ez dutela hori betetzen: "Eurak udalbatzaren zati dira, baina herritarren iritzia jakin

nahi badute, herritarrek euren iritzia eman beharko lukete" esan du Ainhoa Sagarrirai Aretxabalatako PSE-EEko bozeramaileak. Mozioko bigarren puntuan jasotzen dute atez atekoaren kostuak zenbatekoak izango diren zehatza eta organikoak nora eraman go dituzten argitzea.

ESANAK

"Atez atekoak zein kostu ekarriko dituen jakin nahi dugu"

AINHOA SAGARRIBAI | PSE-EE

Ez dute elur bereziki asko iragarri neguko tenporek

"Negu naturala" izango dugula dio Pello Zabalak, gehiegizko hotzik ez, ezta iazko epeltasunik ere

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aurreko hiru hilabeteekin alderatuta, hezetasuna izan da nobedadea Pello Zabalaren arabera: "Hego-mendebaldeko haizearekin hasi ginen aurreko asteko eguaz-

tenean eta eguenean. Aldaketa dakarren haizea da haize hori, eta hortik sartu zuen itsasokoa, hasi zen bustitzen, eta gero euri gehiago ipar-mendebaldekoarekin". Zabalaren arabera, haize

horrek ekarriko du, "nahiz eta ez beti", "iparraldekoagoa" dena, eta horrek elur pixka bat.

Behatu beharreko azken hiru egunetan euri langarra izan da, itsasotik etorria; hortaz, zenbat euri egingo du neguan? "Auskalo, batzutan gehiago, beste batzutan gutxiago". Baina aldaketa horiek izango direla dio Zabalak: "Aldaketa horiek, elur eta guzti behar bada, ilbeheran etorriko dira. Aurreko zapatua ilbehera izan zen eta orduan eta domeka goizean izan genuen elurra". Bai-

na ez omen da bereziki elur askoko negua izango.

Antizikloia etortzen denean, ordea, astebeteko zeru argiak ere izango direla dio Arantzazukoak; eta izotza ere "hortxe-hortxe".

"Aldaketa horiek, elur eta guzti behar bada, ilbeheran etorriko dira"

FARMAZIAN
lizentziaduna behar da

Debagoieneko farmazia baten ordezkatzeko bat egiteko Sei hilabeterako (urtariletik ekainera)

Interesatuok deitu edo idatzi:
680 79 77 78
943 78 21 16
txaro@guifarco.es

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/



Olentzero, aurten, eskian dator

Olentzerok idatzi dosta. Zelan aldatzen diran gauzak, kama-rada! Zer eta Olentzero bera gutunak bidaltzen! Aurki alde batetik bestera ibilli biharko dala eta, arduratuta dago. Esaten dosta, krisi garai honetan, ez dakixala zelan iritsi etxe guztixetara, danok eskatzen ditudun horrek guztixak ezin leikiela batu; bi hitzetan: ez daguala nahikua eta kitto! Eta laguntzia eskatu dosta; zeñi eta neri! Eta zer demontre emon neikixo ba, nik, Olentzerori?

Solidario izan guran, dakagunetik emon bihar dalakuan, zer dakaten begiratan hasi naiz. Zer dakat banatzeko modukua, hari emon eta berak birbanatzeko? Luze pentsatu ostian, hiru gauza topatu ditudun nere barruan; emonda be gastatuko ez diranak, gaiñera:

-Lehenengua, ilusiñua; aurre-eragiteko gogua dakat banatzeko moduan. Kontseilluan martxan ipiñi dogun plan erraldoiak demaseko indarra emon dosta. Nora-bidia argi ikusten dot, euskaraz bizitzera helduko gara.

-Bigarrena, ekimena; hori guztixa egiteko borondatia be banatzeko moduan nago, konpartitzeko. Eta euskararen egunian, Arrasaten, egin genduan grabaketa saiuan, ikusi neban badauala zeñekin konpartitu. Lanerako gogua eta konpromisua, hortaz, kutsatu egin leikez.

-Hirugarrena, antolatzeko prestutasuna; prest nago denboria bestiekin konpartitzeko, plan on bat egiterakuan sortu neikiena eta esperientzia konpartitzeko. Eta, gaiñera, iñori ezer eskatu barik egingo dot hori.

Arrasateko euskalgintzakuok eta Udala hitzarmen bat lantzen hasiak gara, euskeriaren normalizaziñorako lan-modu egoki bat lotu gura dogulako. Eta hor banatuko dot Olentzerok eskatu dostan laguntza apur hori, lanian, ekimen eraginkorra eraikitzen. Hortaz, horrekin ados dauden guztixei emonda dago Olentzeroren oparixaren zatitxo bat.

Eta zuek, badakazue zer eskeiñi Olentzerori?

"Prest nago denboria bestiekin konpartitzeko, ezer eskatu barik"

USTEAK USTE


JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Boloan bizitakoa, bolo-bolo

San Nikolas. 12:30ak jota Uarkapen. Aurten ohi baino haur eta guraso gehiago zain Udalaren bolorako. Hasi da litxarre-rien euria, baina zerbait ez doa ondo. Neska-mutiko batzuk negarrez hasi dira. Salbuespenak salbuespen, bultzadak ikusten dira, eta gozokiak harrapatu nahian guraso batzuk beste ume batzuk zapaltzera iritsi dira. Boloan pasa dena bolo-bolo dabil herrian, eta ez da harritzekoa. Haurrekin maiz lan egiten dutenek diote ez dela kasu isolatua. Txikilandian, hamar egun eskas barru Uarkapen bertan irekiko den Gabonetako jolas parkean, gune batzuetan gurasoei debekatu egin diete sarrera. Premiazkoa da hausnarketa. Aita eta ama, ez ahaztu eredu zaretela.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

Emakumeok, elkar gaitezen!

Maipi Urteaga

(Oñatiko berdintasun taldekoen izenean)
Oñati

2011n emakumeok ia esparru guztietan gaude, mailak igotzen goaz, baina oraindik matxismoaren zamak emakume ugari utzi ditu eraila.

2012an lanean segitu behar dugu injustizia hori bukatzeko, eta berdintasunaren alde.

Emakume guztioi: animatzen diren ekintzetan parte hartzera, bakoitzaren ekarpenarekin.

Emakumeon elkartasunak indartsuago egingo gaitu. Denona da ardura.

Eskerrik asko, guztioi

Ane Zabala

Arrasate

Aurreko aste bukaeran -abenduaren 18an, domekan- Santamasetako krosean parte hartu genuen, eta esan nahi

dut benetan sentitzen dudala orduko sari banaketan egon ez izana.

Edozelan ere, nahiz eta sari banaketan ez egon, heldu zaizkigu sari guztiak eta ondo aprobetxatu eta gordeko ditugu.

Horrenbestez, nire izenean eta Oinazkarren koadrilaren izenean, eskerrik asko.

Eta bestetik, eskerrik asko, animatzen egon zen jende guztiari.

Eta emakume guztioi, parte hartzeko gogoz gelditu zaretanoi, esan behar dizuegu datorren urtean zuekin kontatzen dugula.

Izan ere, joaten bagara urrun dauden lasterketetan parte hartzera, zergatik ez gertuen daukagunera?

Besterik gabe, eskerrik asko, berriro ere, eta ea datorren urtean jende gehiago animatzen den.

Ilbeheraren laurdenka

Pello Zabala

http://berria.info/blogak/pellozabala/

Atzo gauerdiko lehen orduan pasa ginien ilbeheraren ixurira. Ez zuen elurrik ari.

Baina mardul emango zion gerora.

Ilargi koska bakoitzak 28 ordu inguru eman ohi ditu ekite-maila indartsuagotan.

Beste sei egunetan seina ordutara datorren indar biazialdia, laurdenka bakoitzean lau ordutara azkartzen zaio.

Airearen indar bizitze horiek larunbat eguerdi aldetik igande goizeko sierak alderaino iritsi ziren.

Aire indarren nahasketa horrek daragio aroaren bihurtzearekin ere.

Akordatzen asteburu honetako traketsaldia noiztxu gauzatu den?... Bada, hori...

Ez dezagun ahaztu, ostegun goizean, 5.30tan (6.30) sartzen omen garela neguan, egun laburrenetariko batean; arratsaldetik 4 minutu eta erdi gauari irabazi dizkiogunear. Eta gogoan, baitere, Gabon arratsez, 18.07an (19.07) betetzen dela ilargia bere betean.

Eguberri ilbetez dugu aurten.

Orduan hurrengo laurdenka: larunbat ia osoa, goiz goizetik gauerdia ondo pasa deneraino, aroa ekite-maila indartsuagoan ibiliko da airearen aldetik. Ea zer dakarkeen... izotz garbi garbiren bat, akaso?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disainua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amalia Munduriano, Zierza Martin,

Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA

ARRASATE 20500:

Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA

ARETXABALETA 20550: Durana 11

Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54

aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com


Lege Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale.

Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Carrefour GORBEIA

Abenduaren 16tik 31ra arte

Dastatu Gabonak



ANNA DE CODORNÍU
"Cava" jatorri izena
Brut Erreserba
75 cl

4 botilako Kaxa
29,90€

Botila
7,48€



Txerrikume osoa
Kiloa

5,45€



Behi
solomilloa
Kiloa

18,90€



Ganboi erraldoia
20/30 ale kiloko
Kiloa

7,50€

Carrefour Selección Piña
Barietatea: Extra Sweet,
Jatorria: Costa Rica
Kal.: A-6, Kat.: 1º
Kiloa

0,95€



CARTE D'OR
limoi-sprbetea
1l + 50% doan

unidade 1
2,95€
1,97€ litroa

2. unitatea -%50

2 unitate
4,43€
1,48€ litroa

2. unitatea
1,48€

DASTATUZ DOAN*

Carrefour

*60€ baino gehiagoko erosketa eginda,
Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1eko
autobidea ordaintzen dizuegu.

Carrefour
GORBEIA



ARRASATE

ARETXABALETA

EZKORATZA

carrefour.es

Javier Goienetxea | Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentea

"Ilusio eta irudimen handiarekin ospatuko dugu Kooperatiben Urtea"

- ▶ Kooperatiben Nazioarteko Urtearekin bat egin dute Euskadiko kooperatibek
- ▶ Urtea 96 kooperatiba berrirekin eta 200 lanposturekin bukatuko dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Kooperatiben Nazioarteko Urtea da 2012a, Nazio Batuen Erakundeek hala aitortuta. Konfekoop-ek, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak bat egin du horrekin. Konfederazio horretako eta Funko, Euskadiko Fundazioen Konfederazioko presidentea da Javier Goienetxea (Lekeitio, 1960). Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko presidenteordea eta Erkoop Kooperatiba Elkarteko zuzendari nagusia ere ba da. 25 urte baino gehiago daroa kooperatiben munduan: industria taldean (Danobat eta Eika) eta banaketa taldean (Eroski eta Erkop). Mondragon Korporaziko hainbat zuzendaritza-organotan egon da (Eroski, Lagun Aro, Mondragoneko Batzorde Iraunkorra...). Hauxe dio: "Kooperatibak ezagutarazteko aprobetxatu dugu 2012a".

Zer moduz doa dena Kooperatiben Nazioarteko Urtea prestatzeko?

Diru aldetik, ez da unerik onena. Edozein modutan, prest gaude, bai; ilusio handiarekin eta irudimen handiarekin ordezkatuko dugu diru falta.

Ekintza nagusietako bat Oñatin izango da, eta Debagoiengan beste ekintza asko egingo dituzue, ezta?

Bai. 20 bat ekintza daude, eta bat da Espainian dagoen gizarte ekonomia ikerlariak bilera berezia. Hiru egunekoa izango da, eta Donostian eta Oñatin egingo dute.

Debagoiengan ekintza gehiago izango dira: Erkiden daude irakaskuntzako federazio gehienak (%90), eta marrazki lehiaketa bat egin nahi da ikasle guztien artean, eta opariak azaroko ekintza berezi baten banatu. Eta amaiera ekintza gisa, Mondragon Korporazioaren laguntzarekin kongresua egin nahi dugu, eta Pauline Green, munduko kooperatiben lehendakaria etorriko litzateke horra. Egitarau potoloa prestatu dugu, bai.

Konfekoop-en helburuetako bat kooperatibak jendarteari ezagutaraztea da. Ze hutsune ikusten duzue, bada?

Uste dugu jai bezala har ditza-kegula gure ekintzak, eta helburu nagusia gure burua ezagutaraztea eta gure ezagutza zabaltzea da. Arrasaten eta inguruan oso ezagunak dira Mondragon Korporazioa eta kooperatibak, baina Euskal Herrian



Javier Goienetxea. | LEIRE KORTABARRIA

eta Espainian, kooperatibismoa ez da hain ezaguna eta uste dugu gauza batzuk ondo egiten ditugula eta merezi dugula ezagutu gaitzaten.

Debagoiengan, folklore antzeko zerbait da: hemendik kanpokoei erakusteko politikak dira kooperatibak, baina gure garrantzia ez daukagu barneratuta, eta erakundeek gu hobeto ezagutzea beharko genuke.

Nazio Batuek urte bat eskaini diete kooperatibei. Zer diozu? Poztasun handiz hartu dugu, eta aukera gisa hartu dugu: aukera urtea aprobetxatzeko, ospatzeko eta ezagutarazteko zer garen eta ze garrantzi daukagun.

Aurten, Kooperatiben Nazioarteko Eguneko ardatza gazteak izan dira: Gazteak, kooperatiba-enpresaren etorkizuna izan da leloa. Betetzen dabil hori?

"Zuhurtasun mezua ez da berria; beti zuhurrak izan gara kooperatibok"

Gaztea beti da garrantzitsua, etorkizuna delako. Kooperatibista egin egiten da, eta gaztaroak duen indarra aprobetxatzeko aukera dugu: guretako, hori da etorkizuna.

Eta gazteak badabilza kooperatibetan sartzen?

Gaur egungo egoera ez da errazena, baina hor gabilza lanean; eta asmoa ba da kooperatibetan jende gehiago sartzea; gehienbat, gazteak.

Konfekoop-ek esandakoa da, gaur egungo krisialdian ere, kooperatibak sortzen dabilzala. Hala da?

Bai. Aurten, 96 kooperatiba berrirekin eta 200 lanpostu ingururekin bukatuko dugu urtea; 100 sortzea zen asmoa, baina hala ere, kooperatiba gehien sortzen duen erkidego autonomoa izango gara aurten ere. Beste urte baten 100 pasatxo egin ziren.

"Kooperatiben garrantzia ez daukagu barneratuta"

Zuek esandakoa da ere krisiari nahiko ondo eusten dabilzala kooperatibak; baina hori da konfederazioko guztien kasua?

Konfekoop-en, garraiolarien federazioa dago, kontsumo federazioa (Eroski, adibidez, horkoa da) eta industria taldekoak; Erkiden, irakaskuntza sailekoak; eta nekazaritza eta elikadurakoak. Krisiak askotariko eragina du, bai. Esaterako, nekazaritzaren egoera lehen ere zaila zen, kostuak handiak direlako eta salmenta prezioak askotan ez dielako konpentsatzen; bada, euren egoera ez da krisiarekin kaskartu. Kontsumoan igartzen da murrizketa bat, eta horrek Eroskin eragiten du. Industrian, eraikuntza oso gaizki dago; automobilgintza, nahiko ondo; jasotzeko aparatuen arloa ere nahiko ondo eusten dabil... Denez, dago, baina 2012ko egoera zaila ikusten da.

Mondragon Korporazioak 2012an ere zuhurtzia neurriekin jarraituko duela iragarri du.

Konfederazioa ordezkatzen dut, baina Mondragon taldetik nator eta hangoa naiz. Mezu konkretu hori oraingoa da, baina gure asmoa

beti horixe izan da, zuhurtasunez jokatzeko. Beraz, mezu hori ez da berria, baina egoerak lagundu egingo du. Egoera zaila da, baina egoera zailari norberak egin behar dio aurre; norberak ondo hartzen badu, hobeto eramateko moduan izango gara.

Ze tamainako kooperatibak, zelakoak daude Konfekoop-en?

Erkiden daude kreditu kooperatibak (Lan Kide Aurrezkia eta Iparkutxa), lan elkartekoak (Mondragon Industria Taldekoak: Fagor, Ulma eta beste batzuk; Goizper, Irizar...) eta irakaskuntzakoak (kooperatiba diren ia guztiak, adibidez Arizmendi, Txantxiku eta Aranzadi). Hortaz, esan dezakegu denetariko tamainako kooperatibak daudela.

Eta Konfekoop osoan?

Konfekoopek batzen du Erkide gehi beste hiru Kooperatiba Federazio: Euskadiko Nekazari-Elikagaiena, Kontsumokoena (Eroski da hemen garrantzitsuenak), eta Garraiolariena. Guztira, 870 kooperatiba inguru izango ditugu urte bukaerarako, 600.000 bazkide, eta 56.000 langile, eta horietatik 38.000 pasatxo lan bazkideak dira.

Erretira zaitez holandarrak bezala

Egizu Aurreikuspen Plana
kaudimen eta etorkizun
handiko erakunde batean

Zein izango da zure pentsioa bihar? Eta zenbat jarri beharko zenuke urtero erretiroa hartzen duzunean bizi-kalitate ona mantentzeko?

Sar zaitez www.kutxa.net-en eta zeuk kalkulatu duzu hori simulatzaile sinple baten bidez. Edo zoaz edozein bulegora eta gure **gestore batek lagunduko dizu** erabakitzen zein den zure kasuan Planik onena.

Gainera, beste finantza-erakunde batetik Kutxara intsuldatzen duzun zenbatekoaren **%3ko hobaria** emango dizugu. Horrek **3.000 eurorainoko oparia** suposa diezazuke.*



* Kanpoko beste BGAE/EPVS-etatik Kutxa Bi Bermatua 2015 eta Kutxa Bi Bermatua 2019 Aurreikuspen Planetara egiten diren intsuldatetarako. Zenbateko gordin horri PFEZren konturako atxikipena aplikatuko zaio. Kutxa Aurreikuspen Planak Kutxa eta Kutxa Bi BGAE/EPVS-ra atxikita daude.

DUELA 10 URTE

2011-12-21

Arrasateko KZgunea zabalik

Arrasateko informatika gela berria zabaldu zuten Uarkape pilotalekuan: gela baten Internet erabiltzeko eta bestean, hezkuntzarako erabiltzeko. Horrela, alde batetik Interneten doan ibiltzeko aukera zabaldu zuten; eta bestetik, Internet erabiltzen ikas-teko aukera ere. Informatika gela astelehenetik egubakoitzera zabalik egoten zen, hamasei urtetik gorakoentzako doako zerbitzua eskainita.



Internet doan erabiltzeko aukera. | UBANE MADERA

2011-12-21

Santa Anaren irudia agertu zen

Hamazazpi urte zela Antzuolako Galartza auzoko Santa Ageda ermitatik ostutako Santa Anaren irudia agertu zen Bartzelonan. Santa Ana gotiko herritar estiloko egurrezko irudia da, XIII. eta XIV. mendeen artean landutakoa, metro bete pasako altuera du eta polikromatua da. Antzuolako ermitatik ostu zuten 1984ko ekainean. Guardia Zibilak antikuario bati atzeman zion.

DUELA 5 URTE

2006-12-22

Aztarnak Santa Marinaran

Arantzadi zientzia elkarteak Eskoriatzako Santa Marina esparruan indusketa arkeologikoak egiten ziharduela hainbat aztarna aurkitu zituen. Metro gutxi lur azpian egin ondoren, XVI. mende bukaerako hilobi bat, kanpaiak egiteko hiru molde (Gipuzkoako 6., 7. eta 8.ak) eta hiru labe aurkitu zituzten.

ARAMAIO

HERRITARRAK

Bittor Kortabarria Bixente Goikoetxea abesbatzako presidentea. | MIRYAM GALILEA

"Zaletasuna gaztarotik dator, Euskal Jaietan debekatuta zegoenetik"

Herritar harroa eta abeslari amorratua topatu dugu Aramaion. Urtetan Bixente Goikoetxea abesbatzan kantuan ibilitakoa eta martxoan ezker bertako presidente dena: Bittor Kortabarriarekin batu gara bere zaletasunak hobeto ezagutzeko. **Abesbatzako presidentea zara, baina zaletasuna aspalditik dator-kizu?**

Martxo aldera hasi nintzen presidente lanetan Angel Astondoa ordezkatzuz, baina badira 30 urte koruan nagoela. Aramaion zaletasuna egon da beti, eta nire kasuan gaztarotik dator. Afalostean abesteko ohitura handia egoten zen 18-20 urte nituenean. Orduan Euskal Jaia egoten ziren eta kaleetan abesten genuen; debekatuta zegoen, baina... Orain afarrietan hasi gara mugitzen eta koadrila bazkarietan eta kinto-afarrietan ohitura handia hartu dugu. Dena den, jende berria behar da, zaletasuna eta gogo duen jendea; abesbatza berri egiten behar dugu; bestela, galdu egingo da, eta pena izango litzateke.

Zein zen Bixente Goikoetxea?

Bixente Goikoetxea Aramaion jaiotako abade bat izan zen, oso figura ezaguna; haren aita udal-letxe idazkaria izan zen. Musika lan ugari idatzi zituen, guztiak elizako kantuak, baina kalitate handikoak, eta gure abesbatzak haren izena hartzeaz gain, egingo obra batzuk ere kantatzen ditu. Guk bezala, Arabako abesbatza batzuek ere abesten dituzte haren obrak.

Aramaio aspalditik herri musikala dela esan dezakegu, orduan?

Bai, noski; baina, gainera, Bixente Goikoetxeaz aparte, Sabin Salaberri herrikoa dugu ere. Denbora baten Gasteizen egon zen, kontserbatorioko zuzendari, eta hark ere obra politak idatzi zituen.



Bittor Kortabarria, Aramaioko Bixente Goikoetxearen estatua ondoan duela. | MIRYAM GALILEA

"Sekula ez nintzateke Aramaiotik kanpo bizi izatera joango"

"Jende berria behar dugu abesbatzan; bestela, galdu egingo da"

Eta Aramaio hirugarren pertsonaia bat ere badugu, Etxaguen auzoko Patxi Uribarren, orain dela hiru urte Euskaltzaindiko partaide izendatu zutena.

Eta herrian, zein berezitasun azpimarratuko zenituzke?

Aramaio oso herri lasaia da, enpresarik ez dago, lan egiten duen jendea Arrasatera joaten da, eta bizi izateko bazter zoragarria da. Arabako Suitza esaten diote batzuek. Kontatzen dute Alfontso XIII.a erregea etorri zela inguru hauetara, eta, hau ikusita, Suitza Txikia moduan izendatu zuela. Bizi izateko oso herri lasaia da.

Aramaio bizi izateko aukera gogoan hartu duzu inoiz?

Sekula ez. Aramaio kanpo ez; familia guztia hemen daukat. Hemen baino hobeto non egongo naiz ba? Arabako Suitza da hau, gustura bizi gara hemen: herri lasaia, giro ona, denok ezagutzen

dugu elkar, mendian ibiltzea gustatzen zait... Urrutira joan gabe mendi asko dituzu: Aizkorri, Gorbela... aspertzeko denborarik ez dago hemen.

Eta abesbatzan kantatzeaz gain, beste afiziorik baduzu?

Egurra lantzea gustatzen zait. Ez naiz inora joan ikastera, baina afizioa badut eta gauzatxo polit batzuk atera zaizkit. Urtetan ajustadorea izan naiz, eta hortik etorri da dena, burnia landu ordez egurra lantzen dut. Bestalde, musikarekin lotuta, zarzuela egiten duen talde baten nago. Hamar urte dira bertan hasi nintzela eta giro zoragarria dago jendearen artean. Egia esan, nahiko gogorra da, baina erretiratuta nago eta denbora luzeagoa daukat. Musikalari, abeslari, dantzari... denak batuta 100 bat lagun gaude; oso talde indartsua da.

Zarzuela emanaldiak antolatzen dituzue?

Taldeak hamabi urte darara zarzuela egiten, nik bertan hamar egiten ditut, eta bai, urtero emanaldi bat antolatzen da Arrasaten eta arrakasta handia izaten du. Aurten azaroaren bukaeran izan dira lau saioak eta azken bietan sarrera guztiak saldu ziren; jende gainezka zegoen Amaia antzokia eta honek jarraitzeko indarra ematen du. Oso pozik gaude. Orain zarzuelak amaitu berri direla, hiru hilabete egoten gara lasai eta otsail bukaeran edo martxo hasieran hasten gara beste batekin. Dena den, jendea animatzea gustatuko litzaidake, talde handiagoa egiteko, gure abesbatza bezala; mantentzeko tradizio politak dira hauek.

Nola ikusten duzu zure burua hementik bost urtera?

Antzera jarraituko dudala suposatzen dut. Oso gustura nago, orain dela gutxi aitita izan naiz gainera!

NIRE HERRIAN

MENDIA ETA HERRIKO GIROA

Mendia gustuko duenarentzat ezin hobea da Aramaio. Etxetik irten eta aukera handia dago; mendi piloa inguruan. Eta ederrak, gainera. Zerbaitengatik esaten diote Arabako Suitza inguru honi. Herriko giroa ere ezin hobea da: oso lasaia bizi izateko eta mugitua eta bizia festa egin behar denean.

HEZKUNTZA ETA DENDAK

Aukerak ikusita, eta jende gaztearengan pentsatuz, herrian dagoen hezkuntza eskaintza eskasa da; umeez 12 urte betetzen dituztenean derrigorrez kanpora joan behar dute ikasten jarraitzeko; lehen, 14 urtera arte bertan gelditzen ziren. Bestalde, denda bakarra dago, eta inportanteak dira; bi edo hiru egotea ondo legoke.

HERRIAK

ARETXABALETA

Bengoa harategia itxi egingo dute, familiaren ogibidearekin bukatuz

Juan Ramon Bengoak eta Mari Jose Armendarizek Gabonen ostean itxiko dute harategia

IRATI GOITIA | ARETXABALETA

Durana kalean duten harategia ixtea erabaki dute Juan Ramon Bengoak eta Mari Jose Armendarizek. Dendaren itxierarekin harakin familia oso baten ibilbidea amaitzera doa.

Familiatik datorren ogibidea

Aitarengandik oinordekotzan hartu zuen Juan Ramon Bengoak harategia, baina bere aitak ere anaia-arrebgandik jaso zuen lekukoa. Izan ere, aitaren anaiek izan zuten aurretiaz Aretxabale-tako Durana kalean dagoen harategia; arrega, berriz, Gasteizko harakin batekin zegoen ezkontuta, eta arabarrak erakutsi zizkien sekretu guztiak bengoatarrei. "Hortik hasi zen gure ogibidea", azaldu digu Bengoak.

Beraz, harakin askoko familia izan da euren. Aipatutako Bengoaren izeba-osabek sei harategi izan zituzten Gasteizen, eta amaren aldeko beste osaba batek beste bat Eskoriatzan. "Nire amaren anaiek ere nire aitarekin ikasi zuen ofizioa eta Eskoriatzan izan zuen denda", azaldu digu.

Egun, Juan Ramon da harategia duen bakarra; beste guztiek itxita dituzte eurenak. Ondorioz, berarekin amaituko da familiako ohitura. "Pena ematen dit denda

ixteak, baina semeek ez dute jarraitzerik nahi. Ikusi dute ordu asko sartu beharreko lana dela eta ez dute horrelakorik nahi".

Urte berriz, bizi berri

Hemeretzi urte zituenean hasi zen Bengoa aitari laguntzen denda. "Orduan ez zitzaidan hain gogorra egiten, sasoa ere hobea genuen-eta" dio. Berrogeita bost urte egin ditu bertan lanean eta Armendariz emaztea izan du lagun. Orain, erabaki dute nahikoa lan egin dutela. Hala ere, Bengoak erdi txantxetan esan digu: "Nik neuk ez nuke itxiko, baina behartuta nago, emazteak ixtea nahi du-eta". Armendarizek nahi izanez gero bakarrik jarraitzeko erantzuten dio senarrari. Hori, ordea, zail ikusten du Bengoak. Harategia ixtean, afizio berri bat bilatu beharko duela esan digu.

Gabon ostean itxiko dute

Egunotan bezero asko hurbildu zaizkie itxierarengatik galdezka. "Broma zalea naizela esan eta ez didate sinesten. Harategian hilko naizela esan didanik ere bada" esan digu Bengoak. Baina sinetsi edo ez, errege ostean bezeroek itxita aurkituko dituzte bengoatarren ogibidearen azken lekukoa den harategiko atea.



Juan Ramon Bengoak Durana kalean duen harategiko atea ixten. | IRATI GOITIA



Juan Ramon Bengoak eta Mari Jose Armendarizek harategian duten salmahairen ondoan. | I.G.

Azken odolosteak, astelehenekoak

San Migeletan hasi eta San Jose bitartean, astelehenegor egiten dituzte odolosteak Bengoak eta Armendarizek; urteko azken astean izan ezik. Astelehen honetan egin zituzten azkenak, 130 kilo. Azkar saldu ziren guztiak. Bezero askok aurretik zituzten enkargatuta. Batzuek, gainera, azkenak zirela jakinda, izozkailuan gordetzeko ere erosi zituzten.

2012

Zorionak eta urte berri on

Urte zaharra badao eta berriari begirada beste urte bat dugu geuretzat zorionekoak gara ez begiratu luxuzko bizi edo ta loteriara ingurukoan alboan goza dezagun egun ta gaba hori norbere eskura dago eta hori "gordoa" da

Gorka Izaskano Arrizubieta



Panderetak eskuetan hartuta, umeak ondo baino hobeto saiatu ziren kaleak girotzen.



Taloa izan zen atzo gehien saldu zen jakia; ehunka saldu ziren.



Beste



Perurena aita-semeek ikuslegoa aho zabalik utzi zuten indar erakustaldiarekin.

Santamasak, herriko kale nagusiak jendez bete-bete egiteko jai demasak

Txerri dantza eta artzainen omenaldia, jendetsuenak

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Barazki eta fruta azoka, artisauen erakusketa, artzainen omenaldia, dantzak, jana eta edana. Besteak beste, osagai horiekin ospatu ziren atzo Santamasak. Urtero modura, jendez gainezka egon dira herriko kale nagusiak. Batean eta bestean, jai giroa nagusitu da, beste behin ere.

Lehenengo orduan jende asko ez bazegoen ere, saltzaileak pozik agertu ziren. "Euria ari du eta ez dago jende asko, baina datozenak asko erosten ari dira", esan zuen lehenengo postuan zegoen barazki saltzaileak.

Kaleak jendez gainezka

Joaldunak kalean gora eta behe-za zebiltzan bitartean, kaleko giroa ere girotzen joan zen. 12:00etarako jendez gainezka zeuden herriko plaza, Seber Altube plaza eta Jokin Zaitegi.

Txistorra usainak erakarrita, herritarrek ere jan-edanera gehitu ziren. Azokako postuak ikusten zituzten bitartean, beste eskuan taloa ondo-ondo eusten zuten asko eta askok.

Arrostaiz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea eta Arrasateko gaitariak

aurretik zegoen giroa gehiago piztu zuten.

Ondoren, Jokin Zaitegi plazan, herriko artzainei eta haien familiei omenaldia egin zieten Udal ordezkariek. Oroigarria eskuartean zutela, poz-pozik agertu ziren omenduak.

Txerri dantzak ere jende asko batu zuen herriko plazan. Dantzarako lekua ezin eginda, gutxi izan ziren dantzaldira gehitu ez zirenak. Ondoren bazkaria egin zuten denek, Musakolan.

Plaza baten edo bestean, herriko egun ospetsuak ez du etenik eduki gaur goizera arte.



Saltokietan denetarik aurki zitekeen.



Erosi aurretik dastatu egin



Denaren gainetik umeek ondo-ondo pasatu zuten atzoko egunean.



Polita

Iazko irabazleak gailendu dira aurten ere fruta eta barazki artean

A. ALKORTA | ARRASATE

12:30ak aldera Udal ordezkariek Seber Altube plazara agertu ziren eta orduan nabaritu zen saltzaileen urduritasuna. Eskuetan barazki, fruta eta saltokirik onenaren lehiaketetako sariak zituztela, banan bana, postuz postu, joan ziren agintariak.

Lonbidek beste behin ere bere egin zuen barazki lehiaketa eta bigarren postuan geratu zen Etxebarria, iaz bezala. Fruta lehiaketan ostera, Etxezarretak jaso zuen saria.

Aurten, urteetan egindako lana saritzeko asmoz, Arana eta Iturbe saritu ditu Udalak.



Inaxio Azkarraga alkatea, Esozi Etxebarria sarituarekin. | A. ALKORTA

LEHIAKETETAKO IRABAZLEAK

BARAZKI LEHIAKETA

1. Jose Lonbide
2. Esozi Etxebarria

FRUTA LEHIAKETA

1. Maria Etxezarreta

HERRIKO SALTOKIRIK ONENA

1. Raket Perez de Arenaza
2. Maria Asun Iturbe
3. Arantza Olabe

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. Buart loradenda
2. Traskilon txakurren ile-apaindegia
3. Altuna lurrindegia

AIPAMEN BEREZIA: OGIA

Dominga Galdos

AIPAMEN BEREZIA: URTEETAN EGINDAKO LANARI AITORTZA

Maria Arana

Jose Iturbe

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



behin ere Txerri dantzak herriko plaza jendez bete zuen eguerdian.



Animaliek umeen arreta erakarri zuten, besteak beste.



Ume bat, txistorra eskuetan duela.



Musikarekin batera, dantzak izan ziren eguna girotzeko ekintza nagusienak.



zuten herritarrek.



Herritarrek artisauekin hitz egin zuten.



Ume bat, herriko plazan.



Dantzariak, herriko plazan.



izan zen artzainen eta euren senideen omenaldia; argazkian, omenduak.



Joaldunak kalerik kale ibili ziren goiz osoan. | ARGAZKIAK: M. GALILEA, M. ARREGI ETA A. ALKORTA

KALE INKESTA

Zer moduz eguna?

LURDES LARRAÑAGA
ARRASATE



"Eguraldiak lagundu ez badu ere, oso giro ona dago. Niri eguneko giroaz gozatzea gustatzen zait; interesatea izaten da".

JUAN ANTONIO ARETXAGA
ARRASATE



"Jendea urtero modura egon da, agian zertxobait gutxiago. Horretan ere eguraldiak zerikusia edukiko du baina bestela dena ondo egon da".

ITZIAR SANTOS
ARRASATE



"Eguraldiak lagundu ez badu ere, urtero egiten duguna egin dugu: goizean kaleko giroaz gozatu eta gero lagunekin bazkaltzen elkartu".

ANGEL VALDEZATE
ARRASATE



"Dena oso polita egon da. Azoka ikusi, tragotxo batzuk hartu eta gero etxera joan naiz bazkaltzera. Hori da urtero egiten dudana".

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.



Ate sekzionalak



Ate bilgarri industrialak



Pertsianak

Garajeko atea
Segurtasunezko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko agente tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak

**Gabon zoriontsuak,
guztioi!**

Txikilandia 2012

Urtarrilak 3·4·5
Arrasaten



Urtarrilak 3 eta 4

Uarkape pilotalekuan. 11:00-14:00 / 17:00-20:00
Tailerrak, ludoteka, wii gunea, ohe elastikoak, ipuin kontalariak, karaokeak, Irrien lagunen puzgarriak eta hamaika sorpresa gehiago!

Urtarrilak 5

GOIZEAN 11.00-14.00 Musakolako Igerileku guztia guretzat!
Ekarri bainujantzia, txapela eta txankletak!
ARRATSALDEAN 17.00tan Kalejira Herriko plazatik hasita.
18.00tan Ikuskizuna Arrasateko Gaztetxean
BONBERENEA txaranga eta PORROTX-ekin



Antolatzailea

Herriko laguntzailea

Baibeslea





Hondakinen kudeaketak eztabaida eragin zuen martitzeneko osokoan; irudian, PSE-EEren mozioaren bozketa unea. | J.B.

"Atez atekoa da ezagutzen dugun sistemarik onena"

Osasuna eta ingurumena zaintzeko onena dela uste du Bilduk; PSE-EEren ustez, atzerapausoa da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Martitzeneko ezohiko plenoan hondakinen kudeaketa sistema izan zen gai korapilatsuena. Talde sozialistak aurkeztutako mozioaren harira sortu zen eztabaida: PSE-EEK bosgarren edukiontzia defendatzen du eta Bilduk, berriz, atez ateko sistemaren aldeko apustu irmoa dauka. PSE-EEK eta EAJk mozioaren alde (8) bozkatu zuten eta Bilduk eta Aralarrek, berriz, kontra (12). Aritz Arrieta PSE-EEko bozera-mailearen arabera, atez ateko sistema "osasungarritasunean, erosotasunean eta eraginkortasun

ekonomikoan" atzerapausoa da: "Bosgarren edukiontzia atez atekoa baino askoz garbiagoa da eta adibideak daude non atez atekoa dagoen herrietan zaborra beste herri batzuetara bidaltzen den. Ez dugu hori Arrasaten nahi".

Bestalde, Bilduk uste du atez atekoa ingurumena eta osasuna gutxien kaltetzen duen sistema dela eta gogoratu zuten hondakinen kudeaketa hondakina sortzen duenaren ardura dela. Horrez gain, Josu Pereda Ingurumen zinegotziak zabor gutxiago sortu behar dela dio: "Zabor kopurua ahalik eta gehien murriztu gura

dugu eta ondorioz birziklapena ahalik eta maila altuenetan eman. Helburu hori betetzeko ezagutzen ditugun sistemen artean atez atekoa da onena".

Urtarrilaren 7rako deia

Bestalde, Bilduk euskal presoan eskubideen aldeko mozioa aurkeztu zuen. Orduan ere eztabaida sortu zen sozialisten eta udal gobernuan daudenen artean. Moxioa onartu egin zen, Bildu eta Aralarren aldeko botoekin (12), EAJren abstentzioarekin (4) eta PSE-EEren kontrako botoekin (4). Hala, urtarrilaren 7an Bilbon egingo den herri mobilizazio orokorrerako deia egin du udalbatzak. Azkenik, EAJk etxebizitza babes-tuen salmentaren inguruko beste mozio bat aurkeztu zuen. Onartu egin zen, EAJ eta Aralarren aldeko botoekin (5), Bilduren abstentzioarekin (11) eta PSE-EEren kontrako botoekin (4).

"Indarrezko" ondarearen eraistea salatu du herritar talde batek

J.B. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak San Isidroko zubia eta Udalak egungo Polmetasa parean dagoen Barrenatxo errota eraisteko asmoa erakutsi duela eta kezkatuta azaldu dira zenbait herritar. Besteak beste, Facebook eta Twitter bidez eskatu dute ez daitezela eman Arrasateko "ondare historiko eta artistikoaren" kontrako "indarrezko eraiste gehiago".

Barrenatxo eta San Isidro

Barrenatxo erroren auzia aspaldikoa da, Polmetasa lan-tegia eraiki baino lehenagokoa. Udalak 2011ko azaroaren 17an akordio bat sinatu zuen, eta bertan Barrenatxo eraisteko

asmoa jasotzen da. Udalak, Aldundiaren azterketa aintzat hartuta, balio handirik ez duela ondorioztatu du eta errota "oso egoera txarrean" dagoelako eta errepidearen ondoan egonda segurtasun arauak betetzen ez dituelako errota zaharra bota egin beharko dute. Hala ere, ondare balioa duten elementuak mantendu egingo direla jakinarazi dute.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziak San Isidro zubia bota gura du. Jaurlaritzak dio zubi horrek uholdeak sortzen dituela. Ondare mantentzearen aldekoek gogoratu dute zubi hori XVIII. mendekoa izan daitekeela.

AEDk tailerra antolatu du gazteak irratia erabiltzera animatzeko, abenduaren 26an eta 27an

AEDk irratia tailerra antolatu du. Hilaren 26an AEDn egingo da tailerra eta 27an, berriz, gaztetxeko Itxungi irratia librea. Helburua da irratian aritzeko bidea zabaltzea. Herriko gazteei irratia gertuagotik ezagutzeko aukera eman gura diete eta aldi berean gazteak irratia erabiltzera animatu. Eskolak bi ordukoak izango dira, 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko AEDra deitu (943 77 12 28) edo aed@aedelkartea.com helbidera mezua idatzi behar da. Bost euro ordaindu behar da eta lekua mugatua da.

Aldundia pozik dago gaztegunearekin, "aspalditik eskatzen zen tokiaren beharra" bete delako

Aldundiko Gazteria zuzendari Jokin Melidak poza azaldu du gaztegunea dela eta: "Arrasateko gazteak elkartzeko eta jarduera ezberdinak egiteko aspalditik eskatzen zuten tokiaren beharra asetzea lortu dugu". Udalar erdiguneko gaztegunearen gastuak ordaintzeko emango dion 114.000 euroko laguntza onartzen duen ebazpena kaleratu berri du Diputazioak. Laguntza horrek zerbitzuaren kostuaren %55a ordainduko du.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

PUB HAIZEA



Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta



BASATI
TABERNA

943 71 17 68



Mansorena, erakusleiho politena

Manso optikak jaso du aurten Udalak deitutako erakusleiho lehiaketa. 300 euroko saria eta garaikurra jaso ditu Pili Mansok. Bigarren saria (250 euro eta garaikurra) Baster jantzi-dendarendako izan da eta hirugarren saria Ninika loradendak irabazi du. 200 euro eta garaikurra eraman ditu Ninikak. Ama-alabak dira Manso eta Ninikako jabeak.

Emakume bat erasotzearen gizon bat atxilotu dute

Ustez emakume bat erasotzearen 59 urteko gizon bat atxilotu zuten astelehenean Bergaran. Atxilotutako gizonak delitu aurrekariak dauzka. Antza denez, emakumea kolpatu eta iraindu ondoren, haren txakurra eraman zuen erasotzaileak. Herri barruko etxe baten izan ziren gertakariak.

Erregetxo plazako lanengatik itxita Zabalotegirako bidea

Asteon hasi dira botatzen Mariaren Lagundiko *eraikin berria* izenarekin ezagutzen dena. Lanak direla eta, urtarilaren 6ra arte itxita izango da Zabalotegirako bidea 08:00etatik 13:30era eta 14:30etik 18:30era. Etorkizunean 63 etxebizitza egingo dituzte eraikinaren tokian.

Plan Estrategikoaren ondorio nagusiak aurkeztu dituzte

- ▶ Herritarrek eman zuten planaren berri, udaletxean
- ▶ Erreferentziako markoa izatea da helburuetako bat

EDU MENDIBIL | BERGARA

Plan Estrategikoa aurkeztu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Prozesuan 82 lagunek hartu dute parte eta, era berean, Facebook-saretik 600 bat lagun izan dira prozesua segitu dutenak. Horixe adierazi zuen Jaione Isazelaia zinegotziak. Isazelaia eskerrak eman zizkien parte hartu duten herritar guztiei. Era berean, Udal Gobernutik gonbidapena egin zien oposizioari eta Udaleko langileei Plan Estrategikoa osatzen segitzeko. Bada, dokumentua sakon aztertu ondoren, lehentasunak finkatzeko ordua iritsiko da.

Erreferentziako markoa

Bi izan dira helburu nagusiak: alde batetik, Udalaren eguneroko kudeaketarako baliagarri izango den erreferentziako marko sendoa izatea, epe luzearako definizio edo marko horren falta sumatzen zelako; eta, beste alde batetik, *marrak* hori herritarren parte hartzean oinarrituta egitea.

Prozesuan parte hartu dutenen izenean hamar lagunek eman zuten Plan Estrategikoaren berri astelehenean. Emaiza eta ondorio nagusiak azaldu zituzten jendaurrean. Herritar ugari batu zen udaletxean.

Etorkizunerako erronkak

Ander Elortza, Aitzol Gandiaga, Agurtzane Elortza, Ariane Kareaga zinegotzia (Nagore Iñurategi ordezkatzuz), Nerea Mendizabal, Aitor Eraña, Jon Olivares, Ander Zangitu, Peio Garitano eta Juan Luis Gonzalezek eman zituzten azalpenak.

Ander Elortzak hauxe azpimarratu zuen: "Udala herrira gerturatu nahi da, atea herritarrei zabaldu, eta herriko eragile ezberdinen arteko elkarlana bideratu. Herria guztion artean eraikitzea da asmoa". Gazteak, iraunkortasuna, euskalduntasuna, kulturagunea, lana, gizarte zerbitzuak, kirola eta hezkuntza landu dituzte, besteak beste. Jon Olivaresek, berriz, auzoen garrantzia aldarrikatu zuen: "Bergarak auzo ugari ditu ingurunean, eta auzoek dinamika propioa dute. Identitate lokal hori mantentzea eta transmititzea oso garrantzitsua ikusten dugu. Auzoetan bizitza egotea nahi dute herritarrek, eta horretarako beharrezkoa da bertan aktibitate ekonomikoak egotea, aisialdirako aukerak izatea, gutxieneko zerbitzuak...".

Etxebizitzari dagokionez, politika egokia eta alokairuaren kultura sustatzeko premia azpimarratu zuen Ander Zangituk. Juan Luis Gonzalezek Berrikuntza Gunea jorratu zuen, eta, turismoari dagokionez, etorkizunean, Seminarioko museoa proiektu izarra izango dela esan zuen.

Landutako txostena Udalaren webgunean izango da eskuragarri. Aurrera begira, parte hartzeko bi gune egongo dira: talde iraukorra (proiektu estrategikoen jarraipena egingo duena) eta proiektu konkretuen garapenerako lantaldeak.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urdete 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



ARGITU

Psikologia eta osasun etxea

Psikoterapia kognitiboa eta jokabidearena
Haurrak - nerabeak - helduak - indibiduala - bikoteak - familiak

PROGRAMAK ETA TAILERRAK

Tabakoaren mendekotasuna gaintzeko tailerra
Urtarrilak 28 eta 29

Laguntza doluan
Adimen emozionala
Ikasketa ohiturak
Guraso eskola
Beste batzuk...

675 70 68 07

Bidebarrieta 27 B, 9. bulegoa. EIBAR



Aurkezpenaren parte hartu zuten herritarrek eta Jaione Isazelaia zinegotzia. | E.M.

Sahara aldeko janari bilketa egingo du Bubisher elkarteak urtarrilaren 20ra arte

Ekimen solidarioarekin bat egiteko eskatzen diete herritarrei

E.M. | BERGARA

Gabonetan ohikoa bilakatu denez, Bubisher elkarteak Sahararen aldeko janari bilketari ekin dio. Aurreko urteotan bezala, egoskariak (dilstak, garbantzuak eta beste), pasta, olioak, azukrea, atun eta sardina lata, helduendako fardelak eta konpresak batzea da kanpainaren helburua. Herriko hainbat dendatan (Eroskin, Dian eta Super Amaran tarlean) eta udaletxean jasoko dituzte

Sahararen subiranotasunaren aldeko elkarteak da Bubisher, 2005ean Bergaran sortutakoa. Urtarrilaren 20ra arte egingo dute elikagai bilketa. Gabonen ostean herriko ikastetxetara joko dute, baita Elgeta zein Soraluze-ko eskoletara. Era berean, Kutxan eta Euskadiko Kutxan kontuan zabaldu dituzte diru laguntza ekonomikoa eman nahi dutenak.

Debagoieneko bakarrak

Esan bezala, 20 bat lagun ari dira Bubisher elkartearen bueltan 2005. urtetik. Elkarteak sortu aurretik ere herritar talde batek Sahararen aldeko janari bilketa egiten zuten Gabonen inguruan. Nubi eta Iesbaa elkarteekin batera kolaboratu izan dute Bubisherrek



4.000 kilo inguru batu zituzten 2010. urtean. | GOIENA

baina momentuan Bergarako elkarteak da lanean jarraitzen duen bakarra. Iaz, Euskadiko Frente Polisarioak hartutako erabakiarekin bat egin zuten aipatutako taldeek eta Gabonetako janari bilketa udaberrira arte atzeratu zuten orduan.

Bergara, herri solidarioa

Bubisher elkarteak azpimarratu izan du betidanik laguntza han-

dia zabala jaso izan dutela Bergaran eta hori dela eta eskerrak eman nahi dizkiete laguntza kanpainan kolaboratu izan duten guztiei.

Elkartasun kanpainaren helburua da Aljeriako Tindoufeko errefuxiatuen eremuetara elikagai iraunkorrak bidaltzea, haien premia handia dutelako. Ekimen solidarioarekin bat egiteko dei egin du Bubisherrek.

NIRE USTEZ

JON SUINAGA



Ilusiozko eskutitzak

Gauza bat argi dago, pertsonai hau ez dute sortu marketin estudio baten ostean, bestela dotore, ederra eta fin-fina izango zen. Ordea tripontzi, buruhandi eta musu-zikin bat da, eta hori gutxi izango balitz ardazale eta erretzailea! Baina gurea da eta harro sentitzen gara, maite dugu eta ez dugu inoiz aldatuko.

Protagonismo guztia gizon baten gainean dago eta feminista batzuk hor diskriminazio sexista ikusten dute. Azken urteotan, hori konpontzeko asmoarekin, neskalaguna jarri

diote: Mari Domingi. Agian neska bat bigarren planoan jartzea figurante bezala ez du haien arazoa gehiegi konpondu.

Gabon gauean, urtero bezala, kaskabeltza gure etxeetatik pasatuko da eta han aurkituko du txoko baten intxaurrek eta ardotxo baso bat indarrak errekupeatzeko eta beste izkinan zapatak ilusioaz beteta.

Bidalitako eskutitzetan amagabeko jostailuen zerrendak, mota guztietako kapritxoak eta baita ere munduko injustiziak akabatzeke eskaerak. Azken urte kaskar honetan opari oso polita jaso dugu; hain beste injustizia, krisi ekonomiko eta hondamendi artean, azkenean bakea ailegatu da gure herrira! nahiz eta batzuk ez enteratu nahi oraindik.

Beno lagunak, kontuz turroiarekin, xanpainarekin eta familiarekin. Ondo pasa eta Gabon zoriontsuak izan.

Ezker abertzalekoak zapatuan aterako dira kantura; elkarretaratzeak abenduaren 31n eta urtarrilaren 6an

Ezker abertzaleak deituta, bihar, zapatua, 10:00etan aterako dira kantura Espolotik, 10:00etan; 19:30ean Hator, hator abestuko dute plazan. Abenduaren 31n eta urtarrilaren 6an presoan aldeko elkarretaratzeak izango dira plazan, 19:30ean. Urtarrilaren 1ean 01:00etan izango da presoan aldeko brindisa.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak



Linzoainek –iazko erretratuan– ez zuen jokatu, eskuan min zuelako; Mugurutza urtarrilean hasiko da. | X.U.

Ibarreko ordezkari Rezusta eta Bolinaga, Soraluze saritik kanpo

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, jokatuko dituzte hurrengo kanporaketak

XABIER URTZELAI | BERGARA

Lau t'erdiko Soraluze sarian, joan den martitzeneko kanporaketa ez zen ibarreko pilotariendako batere ona izan, Bolinagak (Arrasate) eta Rezustak (Berga-

ra) galdu egin zutelako txapelketako lehen jardunaldian, eta hastearekin batera kanpoan geratu dira. Bolinagak Etxaniz izan zuen aurrean (22-12) eta Rezustak Larunbe (22-15). Bes-

talde, arratsaldeko azken partiduan Otamendik 17-22 irabazizion Epelderi. Debagoieneko ordezkari gazteenak kanpoan geratuta, geratzen diren gainontzeko ordezkariak –Mugurutza

lehengusuek– urtarrilean hasiko dute torneo (Beñat Rezusta geratu dago ordezeko moduan sartzeko); hirugarren kanporaketatik abiatuko dira. Mugurutza I.ak urtarrilaren 10ean jokatuko du, eta Mugurutza II.ak aurrerago, urtarrilaren 24an.

Gaur eta bihar partiduak

Txapelketak aurrera jarraitzen du, eta gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita pilota partidu gehiago izango dira Udal Pilotalekuan. Arratsaldeko lehenengo partiduan Olaetxea eta Urretabizkaia izango dira zein baino zein gehiago. Eta ondoren jokatuko dute Kortabarria eta Jauregi pilota-riek.

Bihar, zapatua, 11:30ean Bendoirok eta Dorronsorok jokatuko dute lehenengo eta Etxanizek eta Sanchok, gero.

Urtezahar egunean

Oraingo zapatuko saioarekin ez da amaituko Gabonen barruan jokatuko dituzten partiduak, abenduaren 31n ere norgehiagokak jokatuko dituztelako. Urteko azken egunean 11:00etan hasiko dituzte partiduak eta guztira hiru izango dira. Dagoeneko bigarren kanporaketako norgehiagokak izango dira, eta hor Alvaradok, Urretabizkaia eta Aurtenetxek egingo dute debuta. Hala, lehenengo kanporaketa gaintu duten pilotariak izango dituzte aurrean. Ondoren, txapelketan deskantsua hartuko du urtarrilaren 10era arte.

Gazte mailako futbol torneo, urtarrilaren 3tik 5era arte

Bergara Kirol Elkarteak urtero antolatzen duen Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa urtarrilaren 3tik 5era jokatuko dute eta Realak, Eibarrek, UDAk eta Bergarak neurtuko dituzte indarrak. Urtarrilaren 3an Bergararen eta Realaren artekoa izango da (17:00), eta hilaren 4an Eibarrek eta UDAk jokatuko dute (17:00). Bi partiduok Ipintzan izango dira. Finala aldiz, hilaren 5ean, Agorrosinen jokatuko dute 16:00etan hasita.

Gabonetako hiruko saskibalo txapelketa 26an eta 27an

Gabonetako hiruko saskibalo txapelketa antolatu du Bergarako saskibalo elkarteak hilaren 26rako eta 27rako; aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Txapelketa hori jokatzeke, Bergarako Udal Pilotalekuko kantxan saskiak jarriko dituzte. Hala, 26an benjaminek eta alebinek jokatuko dute, 10:00etan hasita; arratsaldeko saioa, berriz, 16:00etan hasiko dute. Hurrengo egunean infantilen txanda izango da, eta horiek goizez jokatuko dute (10:00).

ARIGAR-PI, S. L.

Zorionak eta Urte Berri On!

Telleria kalea, 17 – A4 • BERGARA

Tel.: 943 76 13 04

E-posta: arigar_pi@telefonica.net



Garbiketa-produktuak

SARRERAK SALGAI



BAILARAKO ANTZERKI SATIRIKOA

Arrasaten:

- Kajoi taberna.
- Ttukun fotokopia denda.

Bergaran:

- Gracian mertzeria.
- Bule taberna.

Interneten:

barrabarra.eu/events/buy/18



Data: Abenduak 28

Ordua: 19:00

Herria: Arrasate

Tokia: Amaia Antzokia

Salneurria: 7€

Antolatzailea:



Ofeoiak eta Gabero abesbatzak kontzertua eskainiko dute gaur

- ▶ Emanaldia Mariaren Lagundiaren elizan izango da, 20:00etan
- ▶ Orfeoiak hamabost laguneko orkestraren laguntza izango du kontzertuan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Orfeoiak urtero moduan Gabonetako kontzertua egingo du Mariaren Lagundiaren elizan. Gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan hasita.

Emanaldiak hiru zati izango ditu. Lehenengo orfeoiko gazte-txoak-Gabero abesbatza- igoko dira taula gainera, ondoren orfeoia txanda izango da eta kontzertua bi taldeek elkarrekin abesten amaituko dute.

Aurten orkestra eta guzti

Orfeoiko zuzendari Aitor Biainek aurreratu du hamabost laguneko orkestraren laguntza izango dutela Steve Dobrogoszen *Mass* pieza jotzerako orduan: "Meza moderno bat da, oso garaikidea, eta erritmo arraroak dituena. Testu liturgikoa eta musika garaikidea uztartzen dira".

Gaberoaren kasuan oso erreperitorio bariatua egingo dutela azaldu du Biainek.

GABONETAKO KONTZERTUA

GABERO ABESBATZA

'Ave Verum Corpus' (W.A. Mozart).

'Yakanaka' E. Norberg

'Haizea' Ken7.

'Swing Low' P. Gazard

'I'm believer' Brymer

'Tres Cantos Nativos' M.Leite

BERGARAKO ORFEOIA

'Mass' S. Dobrogosz

GABERO ETA BERGARAKO ORFEOIA

'Mariaren Semea' I. Elizasu

'Angels' R. Williams

'Con Te Partiro' J. Wikeley



Orfeoia eta Gabero abesbatzaren kontzertu bateko irudia. | GOIENA

'Kolore Bitxiak' antzezlanaren etxeko txikiendako, hilaren 26an

A.B. | BERGARA

Gabonetako oporrak hasteko modu ezin hobea izango dute Bergaran herriko txikitxoek. Zabalotegi aretoan Mondo Flurss taldearen Kolore Bitxia antzezlanaren ikusteko aukera izango dute abenduaren 26an, astelehena. 2 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako antzezlanaren eta bi emanaldi egingo dituzte; lehenengoa 17:30ean hasiko da eta bigarrena 18:30ean. Sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

Plastiko soinua

Flurss, flurss... soinu bat da. plastikoaren soinua, bata bestearen kontra jo eta bizia har-

tzen duten poltsen soinua. *Kolore Bitxiak* antzezlanaren zaborretarako poltsak manipulatuz paisaia, animalia eta objektu ezberdinak sortzen dituzte oso era harrigarrian.

Guraso eta ume, elkarrekin

Abenduaren 27an, bestetik, ume eta gurasoek elkarrekin jolasteko aukera izango dute Zabalotegin. *Goazen ume eta gurasoak elkarrekin jolastera!* ipini diote izena ekimenari. Euskal kantu eta jolasen saioa egingo dute 17:30etik 19:30era. Jolasetan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza da gurasoak umeekin batera gerturatzea jolas egitera.

Buztinzale eta zerakimagileei BEART elkarteko artistek hartuko diete lekua Aroztegi aretoan

Abenduaren 16an ireki zuten Bergarako buztinzale eta zeramikagileen elkarteko kideek egindako lanekin erakusketa Aroztegi aretoan eta hilaren 25era arte, domekara arte, egongo da zabalik. Buztingileei ondoren, Bergarako margolariek hartuko diete erreleburua Aroztegi aretoan. Bergarako Artisten Elkarteko kideek beraien lanak erakusgai ipiniko dituzte abenduaren 30etik urtarrilaren 8ra.

Gaur egun 60 bazkide inguruk osatzen dute BEART eta elkarteko ordezkariak adierazi dute 50 margolan inguru eramango dituztela Aroztegi aretoan eta baita eskultura bat ere. Estilo oso ezberdinak ikusteko aukera izango dela azaldu dute.

JAIXAK

Ibargarai 9 - BERGARA
Tel.: 943 76 31 45

zabaldur
berria!

- Euskal Jantziak (Ume zein helduentzako)
- Mozorroak
- Jostailuak
- Ikas materiala
- Emakumeendako osagarriak



Neska-mutikoak eskalada egiten Zubikoa kiroldegiko rokodromoan, 2011ko udako kirol kanpainan. | ZUBIKOA KIROLDEGIA

Eskalada eskola ipiniko dute abian urtarrilean

6-18 urte arteko neska-mutikoendako da: eguaztenetan edo egubakoitzetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendik eskalada eskola ipiniko du abian urtarrilean. Deialdia egin dute herritarren artean eta izen-ematea zabalik dago. Interesatuak Zubikoa kiroldegiko harreraren dagoen matrikula orria bete beharko dute.

Eskalada eskola 6 eta 18 urte arteko neska-mutikoendako da. Bi talde sortzeko asmoa dute: eguaztenetan bat eta egubakoitzetan bestea. Jon Agirre izango da irakaslea. "Udako kirol kanpainan eskalada ikastaroak ematen ditugu. Horietan neska-mutiko asko ibiltzen da. Hori horrela, guraso batzuek eskatu zuten ikasturtean zehar halako ikastaroak ematea. Kiroldegiko arduradunak hartu-emanetan jarri ziren nirekin, eta eskalada esko-

la martxan ipintzea erabaki genuen", esan digu Jon Agirre irakasleak.

Eskalada egiteko lekuak

Eskolak astero egun baten emanango dituzte (17:00-18:30), eta adinaren arabera gai ezberdinak landuko ditu: txikienek ikasiko

dute korapiloa egin, arnesa jantzi eta finkatzen; eta helduagoei gauza teknikoagoak erakutsiko die, ardura handiagoa eskatzen duten gauzak. "Eskaladak kontzeptu asko ditu, eta adinaren arabera gauza ezberdinak lan daitezke", esan digu Agirrek.

Ikastaroaren helburua da eskalada eta Oñatik eskalada egiteko ematen dituen baliabideak ezagutzera ematea. "Kiroldegiko rokodromoan ez ezik, Araotzen, eskalada eskolan egin daiteke kirol hau. Lekuak badaude. Gainera, ikusi dugu udako kirol eskaintzan oso erantzun ona duela eskaladak. Aurten hirugarren eskaintza jendetsuena izan da. Umeei gustatzen zaie, eta orain zabalago lantzeko aukera izango dute", dio irakasleak.

ESANAK

"Eskalada egiteko baliabide asko ditu Oñatik"

JON AGIRRE | ESKALADA IRAKASLEA

Olentzerori opariak eskatu eta gutunak emateko azken aukera kalerik kale egingo duen ibilaldian

M.B. | OÑATI

Azken ordura arte ze opari eskatu zalantzan egon direnek edo despistatuek azken aukera dute bihar euren gutuna entregatzeko. Olentzerok ibilaldia egingo du kalerik kale, eta plazan azken gutunak jasoko ditu, opariak banatzera joan aurretik.

Ibilbidea aldatu egin dute

Biharko protagonista nagusia 17:30ean helduko da Otadui zuhaiztira. Han izango ditu zain Martiñola kultura taldeko kideak eta Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak. Martiñolako kideak

laguntzaileak izango dira, eta musika eskolako triki-pandero taldeak kalejira girotuko du. Handik abiatuta herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu. Ibilbidea aldatu egin dute, karroza-ekin erosoago ibiltzeko.

Kale Zaharretik eta Aita Madiñatik igota plazara helduko dira. Handik Kale Barria-Etxaluze joan-etorria egingo dute.

Olentzeroren bisita Foru plazan bukatuko da. Musika eskolako akordeoi taldeak Gabon kantuak joko ditu neska-mutikoek gutunak eman eta gozokiak jasotzen dituzten bitartean.



Olentzero. | RUPER ARKAUZ

Musika eskolakoak bandarekin

Bukatzeke, 19:00etan, musika eskolakoak eta musika bandak duten hitzarmenari esker, haize-instrumentua lantzen dabiltzan 14 ikasle bandarekin joko dute.

'Mendia eta natura' argazki lehiaketako erakusketa zabalik

Urtarrilaren 8ra arte egongo da, hilaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean izan ezik

M.B. | OÑATI

Mendia eta natura argazki lehiaketako argazki onenak erakusketa baten bildu dituzte Aloña Mendi elkarteko mendi saileko arduradunek. Urtarrilaren 8ra arte dago ikusgai kultura etxean (18:00-20:00), abenduaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtarrilaren 5ean izan ezik. Egun horietan itxita dago kultura etxea.

Erakusketan bildu dituzte lehiaketako argazki onenak, tartean saria jaso dutenak: *Alas al sol*, *No a las alambradas III*,

Ez da giro, *Neila*, *Gorbea*, *Ursa*, *Muerte en la carretera*, *Goi tensioa* eta *Burdin hesi hiltzaila*.

Hiru argazki pertsonako

Aloña Mendik antolatutako VIII. argazki lehiaketan 67 argazkilarik hartu dute parte eta 248 erretratu aurkeztu dituzte (gehienez hiru argazki aurkeztu ahal zituzten pertsonako eta ataleko): 179 *Mendia eta natura* atalean eta 69 *Salaketa* atalean.

Jose Agustin Gurrutxaga bergararraren *Gorbea* erretratu. | ALOÑA MENDI

San Silbestre eguneko lasterketarako izen-ematea egunean bertan egin beharko da, gaztelekuan

Antxintxiketaren taldeak San Silbestre eguneko lasterketarako deialdia egin du. Nagusien proban parte hartu gura dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, gaztelekuan, 16:15 baino lehen. Aurtengo berrikuntza ordutegi aldaketa izango da: gatzetxoena 16:00etan eta helduena 16:30ean egingo dituzte. Biak ala biak orain arte baino ordu erdi lehenago hasiko dira.

2011ko kirolari onenak sarituko dituzte gaur: Oñati kirol sariak banatuko dituzte 19:00etan

Udalak 2011ko Oñati kirol sariak banatuko ditu gaur, 19:00etan. 2010-11 denboraldian egindako lanagatik eskerrak eman eta kirolari eta kirol talde onenak sarituko dituzte osoko bilkuren aretoan egingo dute ekitaldian. Era berean, kirolaren alde lan egin duen herritarra omenduko dute. Ekitaldia bukatzeko luncha egingo dute udaletxean.

Hilaren 26an eta 27an ur jolasak igerilekuan eta urtarrilaren 3an eta 4an jolas parkea kiroldegian

Gabonetako oporrak aprobetxatuz hainbat ekitaldi antolatu dituzte etxeko txikieneendako. Hilaren 26an eta 27an ur jolasak egingo dituzte igerilekuan: 26an 16:00etatik 18:00etara eta 27an 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bestalde, urtarrilaren 3an eta 4an jolas parkea egongo da kiroldegian. Egun osoko sarrerak lau euro balio du eta egun erdikoak, 2,5 euro.

'Oñati ezagutu jolasten' delako jinkana egingo dute 7 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako

Hirugarren urtez egingo dute *Oñati ezagutu jolasten* delako jinkana, Txandak eta Turismo Bulegoak antolatuta. Urtarrilaren 5ean egingo dute, 11:00etan, eta parte-hartzaileek askotariko probak egin beharko dituzte herriko hainbat txokotan. Herriko kulturarekin eta ondarearekin zerikusia duten probak izango dira. Sari banaketa ekitaldia 16:30ean egingo dute.



Irene Alberdi eta Jose Antonio Azpiazu, liburuaren aurkezpenan. | M.B.

'50 urtez elkar hartuta': Ulmaren historia hamarkadatan banatuta

M.B. | OÑATI

Ulma Taldeak 50. urteurrenaren harira idatzi duen liburua aurkeztu zuen atzo. *50 urtez elkar hartuta* delako liburuaren aurkezpenan, Ulma taldeko presidente Irene Alberdi eta Jose Antonio Azpiazu idazlea egon ziren. 129 orri eta 80 argazki ditu. "Lan mardula, baina polita da", esan zuen Alberdik aurkezpenan.

Liburua ez dute salgai ipiniko, baina irakurri ahal izango da www.ulma50.com eta www.fundacionulma.com atarietan.

Pertsona askoren hitzak

Liburua idazteko Ulmak duen dokumentazioan oinarritu dira. Idazti Servicios Editoriales enpresak eman dio forma liburuari. Baina, dokumentazioaz gain, Ulmako langile eta bazkide izan direnen kontakizunek presentzia

handia izan dute; eta baita, modu batera edo bestera, Ulmarekin hartu-emanan izan duten pertsonen hitzak. Besteak beste, Inazio Maiztegiren eta Pedro Ugarteren –Ulma taldeko sortzaileak–, Sebastian Aiastuiren –Ulma Forjako sortzailea–, Jose Luis Madinagoitiaren –Ulmako presidente ohia–, Sabino Zuazaberiaren –parroko ohia– eta Alfonso Gorroñogoitiaren eta Jose Mari Ormaetxearen hitzak jaso dituzte.

"Oroitzapenerako liburua"

Ulmaren istorioa laburtzen duen lehen liburua da, eta "oroitzapenerako" liburua izatea gura dute. Aurretik, taldearen ibilbidea jasotzen zuen gehigarri batzuk idatzi zituzten.

50. urteurrenako azken ospakizuna gaurko lirika kontzertua izango da.

Gabon kantuak abesteko batuko dira Ganbarako taldeak

'Gabona, berri ona' delako kontzertua egingo dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Irailean ikasturtea hasi zutenetik gogor egin dute lan Ganbarako taldeek. Tarte horretan ikasitako kantuak erakusten dihardute azken asteetan. Santa Zeziliaren omenezko kontzertuan eta Gabonetako kontzertuan parte hartu zuten. Bada, 2011 bukatu aurretik, Gabon kantuak abesteko elkartuko dira: hilaren 29an, 20:00etan, parrokan.

Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte taldeetako neska-mutikoei Ganbara

ra orkestraren laguntza izango dute: biolinak (Josune, Amaia Artzamendi, Aintzane Bergara, eta Maite Alonso), biolak (Jon Prieto eta Amaia Anton), biolontxeloak (Ane Zangitu eta Jasone Camara), akordeoia (Jasone Camara), klarineta (Lucia Otaegi), flauta (Eneritz Jauregi) eta perkusioa (Maitane Muxika).

Banaka eta elkarrekin

Gabon kantuak izango dira hilaren 29ko kontzertuaren oinarria. Hiru taldeek banaka egingo dute

saioa. Lehenengo, Ganbara Txiki-k lau pieza abestuko ditu: *Carol of the children*, *Pater Noster*, *Dona Nobis Pacem* eta *Tres cantos nativos*. Ondoren, Ganbara Txikitxoak taldekoen txanda izango da: *Gabona berri ona!*, *La ronda de la estrella*, *Urte berri berri*, eta *Horra Mari* abestuko dituzte. Azkenik, Ganbara Gaztekoak izango dira protagonista. *Ave verum*, *Dizdizka zeruan*, *Hiru errege kanta*, *White Christmas* eta *Oh let me fly* kantatuko dituzte.

Kontzertua bukatzeko, hiru taldeek batera hiru pieza abestuko dituzte: Tomas Aragüesen *Suite de Navidad*, Josu Elberdinek moldatutako *Mariaren semea* eta *Din dan don*.

Zuzendari lanak Aitor Biainek egingo ditu eta Eli Mendiartz piano-jotzailea izango da. "Lan handia egin dugu. Entsegu asko, eta luzeak, baina horren emaitzak erakutsiko ditugu hilaren 29ko kontzertuan. Guztiok zaudete gonbidatuta", dio Aitor Biainek.



Ganbara Txiki abesbatzako Easo abesbatzaren auditoriumean, kantuak grabatzen egon zirenean. | AITOR BIAIN

NIRE USTEZ

JABIER
ALUBE

Ikastolak euskaraz

Beti pentsatu izan dut kooperatiben eta ikastolen sorrerak XX. mendeko gertakari garrantzitsuenak izan direla, biak herriaren sustraietatik sortuak. Gaur egun ohikoa iruditzen zaigu neska-mutikoei euskaraz ikastea, baina ikastolak sortu zirenean 1960ko hamarkadan, ezin zen euskaraz ikasi, eta hizkuntza bera zigortuta eta hiztunak umiliatuak zeuden. Ikastolak izan dira euskarazko hezkuntzan lidergoak izan dutenak. Kalitatezko hezkuntza, baloreetan oinarrituta, oztopo guztiak gaindituz, ekimen hezitzaile-eraldatzaileekin. Beti, joera hobek, bidezkoagoak eta berri-tzaileagoak sustatuz heziketaren praktikan. Bidea ez da erraza

izan. Hasieran ia eskola materialik gabe eta esperientzia gutxiak irakasleekin, baina fede eta borondate ikaragarriekin. Bixente adiskideak dioten bezala, gure seme-alabak izan ziren frogatu adierazle. Eta egia da. Horregatik zutabe honen bidez eskertu nahi ditut orduko gurasoak eta irakasleak, eta gaur egungo ikastolen egoera bikainera ailegatzeko esku bat bota zuten laguntzaile guztiak.

Egia esan, lana handia izan da. Baina oraindik jarraitu beharrean gaude, epe luzearako egitasmoa delako. Aurtengo Durangoko Azokako atarian, Jon Irazabal hango zuzendariak esan duenez, "orain dela 30 urte gutxiago irakurtzen zen euskaraz; ikastolen lana emaitzak ematen ari da". Eta ziur ematen jarraituko duela.

"Euskarazko hezkuntza lidergoak izan dute ikastolek"

Espazioko planetetara egindako bidaiak

Logela Mutimediak 'Anaki' ikuskizuna egingo du hilaren 30ean, umeendako

M.B. | OÑATI

Kolore biziak, musika alaiak, marrazki bizidunak, abenturak eta gozoki asko. Bada, horiek guztiak ipiniko ditu Logela Mutimediak *Anaki* ikuskizunean taula gainean (hilaren 30ean, 17:00etan, Santa Anan). 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoendako antzerki multimedia da. Sarrerak kultura etxean eros daitezke, 3,5 eurotan.

Anaki eta Kotaro

Anakiren (Amaia Lizarantzu arrasatearra) istorioa supermerkatuan hasten da. Anaki oso apetatsua da eta gauza guztiak nahi ditu: gozokiak, izozkiak, litxarrerriak... Amak bakarrik uzten duenean, txanpon bidez mugitzen den makina bat ikusten du, Kotaro. Txanpona sartu eta makina hegan egiten hasten da. Kotarok zerutik haratago joateko gaitasuna du, baina txanponak behar ditu. Anakiren txanpone-



Anakik hainbat planeta ezagutuko ditu Kotarorekin bidaietan. | GOIENA

kin hainbat planeta ezagutuko dituzte elkarrekin.

Anakik eta Kotarok egindako bidaiak multimediar kontzeptu asko landuko dituzte: kontsumismoa, elikadura osasuntsuaren garrantzia, sariak lortzeko egin beharreko ahalegina, lagunekin ondo moldatzea...

Hamar urteko ibilbidea

Teknologia berrien alorrean hamar urteko ibilbidean ikasitako teknika eta esperientzia ume eta gazteei zuzendutako antzezlanetan ipini du Logela Mutimediak. "Teknikoki inoiz ekoiztu dugun lanik zailena eta konplexuena da", diote.

Gerraren gaineko liburua aurkeztuko dute eguenean

1930 eta 1940. urte arteko kontuak jaso eta gerraren eragina aztertu dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO
Eguenean, hilak 29, *Gerra Zibila Aretxabaletan. Ezin ahaztu!* liburua aurkeztuko dute Arkupen (12:00). Eusko Ikaskuntzaren beka bati eta Udalaren laguntzari esker, Arantza Berezibar, Aitor Antxia Leturia, Jose Ramon Intxauspe eta Kepa Antxia aretxabaletarrek azken urteotan egindako ikerketa lanaren emaitza da. Hain zuzen, aurkezpen ekitaldi horretan, gerraren eragina jasan zuten familiak izango dituzte gogoan, baita Felix Urtubi Ercilla hegazkin pilotu errepublikanoa ere. Ekitaldira Madrilén bizi den haren alaba Matilde Urtubi eta iloba Arantza etorriko direla iragarri dute.

Herrian izandako gertaerak
Ia 500 orri dituen liburuaren helburua da Aretxabaletan 1930



Prentsan ateratako artikulua ere jaso dituzte. | M.A.

eta 1940. urte artean izandako aldaketa politiko eta sozialak ezagutzera eman eta jasota gertatzea. Gainera, 1936 eta 1939 arteko gerra zibilak gurean izan zuen

eragina aztertu eta jaso dute: herrian izandako gertaerak; herritarren utzitako ondorioak; eta gatazka jasan zuten biktima guztien zerrenda.

la 500 orri dituen liburu mardula

Azken bost urteotan lau lagunek egindako lanaren emaitza da ia 500 orri dituen liburu. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dute, eta lau ataletan banatu: *Gipuzkoako soziologia politikoa eta elektorala II. Errepublikan* (Arantza Berezibar); *Aretxabaletako bizimodua* (Aitor Antxia Leturia); *Aretxabaletako gerran* (Jose Ramon Intxauspe); eta *Aretxabaletako 1930-1939 hamarkadan Euskal prentsan* (Kepa Antxia).



Liburuaren portada.

NIRE USTEZ

ANJEL BERGARETXE



ETA barik

ETAK ekintza armatuak alde batera uzteko hartutako erabakia gehien-go zabal batek poze hartu duela esatea zuzena dela esango nuke.

Baina hain pozik hartu ez zutenak ere badaudelakoan nago. Eta ez da harrizkoa, kontuan hartzen badugu hainbat eta hainbat lan barik geratzen direla orain: bizkartzain, tertuliano, etologo, Euskal Herriari eta Euskal gatazkari buruzko "adituak"...

Egia esan, ez didate pena handirik ematen. Alde batetik, ez zaizkit oso sinpatiko egiten; eta bestetik, ziur konpontzen direla besteen kontura bizitzin jarraitzeko. Hala ere, eurongatik ez, baina eskaini dezaketen zerbitzua ona izan daitekeelakoan, proposamen bat egitera ausartzen naiz.

Zergatik ez erabili lanik gabe geratuko diren bizkartzain horiek mehatxupearan bizi diren emakumeak babesteko, adibidez? PSOE edota PPko hautetsiek beste mereziko dute, ezta? Gainera, azken urteetan, bortizkeria matxistak askoz biktima gehiago eragin ditu, politikoak baino. Eta eragiten jarraitzen ditu.

Hori bai, hau onartzekotan, mehatxatzaileak zaindu ditzatela, eta ez biktimak. Izan ere, emakume hauek nahikoa sufritzen dute bestela ere, gainera inguruan horrelako "motxila" bat jasan behar izateko.

Honek bere alde txarrak ere badauzka, jakina. Besteak beste, bide honetatik Oreja eta antzekoak aberasten jarraituko dute. Txanpon guztiek dute bi alde eta, ezin dena norberaren gustura atera.

"Bortizkeria matxistak askoz biktima gehiago eragin ditu"

Donostiara UDAREN Gabon otzara

Donostiako Ane Arozamenak -5.416 zenbakiaren jabeak- jasotako Aretxabaletako Kirol Elkarteak domekan zozketatutako otzara. Adrian Merino UDako lehendakariordearen eskutik jaso zuen astelehenean bertan.



UDA

Aratusteak gertatzen hasi dira eta hilaren 27an batzarra dago Arkupen

2012ko Aratusteak antolatzen hasita dago talde txiki bat eta datorren batzarra martitzenean dute Arkupen (11:30). Interesatu guztiendako dituzte ateak zabalik.


Era berean, Aratusteetako kartel lehiaketaren oinarriak ere gertu ditu Kultura Sailak. Aurkezteko epea urtarrilaren 14an bukatuko da.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 04 39

MAPFRE



Auto aseguruetan
%20ko
deskontuak!

Errekabarren 3 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

Garbittu

Santakurtz 24, behea ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketara orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristal garbiketak
- Arropa garbiketak

M5 Mitarte 5 | ARETXABALETAKO www.m5denda.com

GABONETARAKO ESKAINTZA
AZAROAK 28 TIK AURRERA

%25 eko DESKONTUA

Gizonezkoen
Bruck soft shel txaketa eta latton softshel frakak % 25 eko deskontua.

Emakumezkoen
Baclay soft shel txaketa eta Azumac soft shel frakak % 25 eko deskontua.

Gure markak: ARCTERYX, TERNUA, ASTORE, BIAL, BUNO, Black Diamond, diamir, GORRION, GRIFFONE, LA SPORTIVA, PETZL, SALOMON, MERRELL, KEEN, FALKE, Marmot, ROCK PILLARI



Basabeazpin egin duten etxetxo, umeak barruan direla. | M.A.

Erabilitako 775 esne kaxarekin etxea egin dute Basabeazpin

Proiektu txiki moduan hasi eta etxetxo dotorea egin dute 4 urteko umeek, gurasoen aholkuekin eta laguntzarekin

M.A. | ARETXABALETA

4 urteko neska-mutikoak etxeen eta eraikinen gaineko proiektua lantzen hasi ziren Arizmendi ikastolako Basabeazpin, orain hilabete inguru. "Kontu batek beste bat ekarri zuen" eta hara, jolas egiteko etxetxo eraiki dute: "Gure helburua ez zen, inondik inora, halakorik egitea, baina ereduak ikusi eta gurasoen laguntzarekin lortu dugu", dio Marta Arriaran irakasleak.

Arkitektoa den guraso batek egin zien proiektua eta zehaztu zenbat kaxa behar zituzten, 775: "Hasieran ezinezkoa iruditu zitzaigun hainbeste lortzea, baina hori

baino gehiago jaso ditugu", dio Arriaranek. Eraikuntza lan egin izan duen beste guraso batek atea eta leihoa egokitzen lagundu zien, eta beste batek kaxak zelan itsatsi erakutsi: "Elkarlanean jardun dugu guztiok, eta ikusmin handia sortu du ikastolako guraso eta aita-aita-amamen artean", azaldu du Iñaki Gonzalez irakasleak.

Neska-mutikoen eskaerei erantzunez tximinia egin diote eta oraindik beste xehetasun batzuk ere jarriko dizkiote; txirrina eta gortinak, esaterako. "Oso gustura egiten dute jolas, batzuetan sukalde bihurtuta eta hurrengoan egongela", dio Gonzalezek.

Urtariletik beste ibilbide bat izango dute autobusek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udalak jakinarazi du urte berriarekin batera, hau da, urtarrilaren 2an hasita beste ibilbide bat izango dutela autobusek gurean eta hainbat geltoki aldatu egingo dituztela. Debagoienean joan-etorriak egiten dituzten autobusen ibilbideak aldatuko dituzte, baina ez Gasteizera eta Donostiara doazenenak. Horiek, orain arte legez, Azbe lantegi alboan geratuko dira.

Hiru geltoki berri

Hona urtarrilaren 2an hasita Debagoienean (batzuk Eibarre-raino) joan-etorriak egiten dituzten autobusen geltokiak: Arrasateko noranzkoan: Araba ibilbidean -oraingo lekuan-; Nafarroa kalean -biribilgunea

baino lehen-; eta Lausitta kalean -oraingo lekuan.

Eskoriatzarako ibilbidea aldatu egingo dute; hona berria: Otalora kaleatik Errebakarrera eta Belorrietako biribilguneetik bueltan Araba ibilbidera. Eta geltokiak: Otalora kaleko 27. zenbaki parean -kuartel zaharraren parean-; Errebakarren kaleko 8. zenbaki parean -osasun etxearen aurrean, sasoi baten egondako lekuan-; eta Araba ibilbidean -orain dagoen lekuan.

Egunotan dabilta geltoki batzuk egokitzen; hori horrela, Nafarroa, Errebakarren eta Otalora kaleetako geltoki berrietan markesinak jartzeko egongo direla urtarrilaren 4a artean jakinarazi du Udalak.

Gabonak ospatzen GSR egoitzan

GSR Debagoiena egoitzan Gabonak ospatzen dabilta egunotan; pozik, gainera. Familien eguna (argazkian) eta San Tomas eguna izan dituzte dagoeneko; gaur Basotxoko abestaldea joango da kantuan eta bihar, herriko umeak.



GSR DEBAGOIENA

Aretxabaleta Abesbatzak eguenean eskainiko du Gabonetako kontzertua

M.A. | ARETXABALETA

Urtero legez, Gabon kantuen emanaldia egingo du Aretxabaleta Abesbatzak herritarren aurrean. Eguenean, hilak 29, izango da (19:00), parrokiaren.

Angel Barandiaranek zuzendutako abesbatzak lagun izango ditu, ohi legez, Jose Luis Frantzesena organo-jolea, Entzi Zubiri tenorra eta J.J. Etxebarria baritonoa. Gainera, Mariatxen Urkia soprano aretxabaletarrak bakarlarari lanetan jardungo du. Gabon garaian ohikoak diren kantuak eskainiko dituzte, tartean

Adeste fideles (J. Reading) eta *Ator mutil* (J. Guridi). Hala ere, kontzertuaren protagonista Jose Luis Frantzesena izango da, organo-jole azpeitiarrak berak egokitutako kantuak eskainiko dituzte-eta; horien artean daude Noeli buruzko inprobisazioa eta *Agur Maria* (bakarlaria, Mariatxen Urkia dela).

Gospel doinuak eguaztenean

Egun bat lehenago, eguaztenean, Donostiako The Upper Room taldeak gospel, soul eta jazz doinuak ekarriko ditu Arkupera (19:00).



KURTZEBARRI ESKOLA

Olentzeroren bisita Kurtzebarrin

Olentzeroren laguntzaileak joan zen Kurtzebarri eskolara eguaztenean, eta txikien gela guztietatik pasatu. Gabon kantuak abestu zituzten Olentzerok opariak banatzen zituen bitartean, eta barruak goatzeko txistorra jan zuten trikilarren doinuek alaituta. Bukatzeko, Gabonetako musika emanaldi berezia izan zuten.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan **EUSKARAZ** plazera delako!



Martitzenean Inaxio Murua eta Roberto Alvarez musikariek giro ona jarri zuten zaharren egoitzan. | ASIER ALKORTA

Nagusilaneak boluntario taldea sortu du herrian

Taldea handitu eta astean ekintza bat egitea da elkartearen asmoa

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Nagusilaneak bolondres talde berria sortu du herrian eta aurrerantzean zaharren egoitzan ekintzak egiteko asmoa dutela iragarri dute. Momentuz taldea hiru pertsonak osatzen badute ere, taldea handitzeko asmoak dituztela esan du Nagusilaneak. Horren haritik, martitzenean lehenengo ekintza egin zuten egoitzan.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, ... Nagusilaneak ibarreko hainbat herritan ditu bolondres

taldeak. Baina Eskoriatzan oraindik ez zegoen. "Leintz Gatzagan ere ez dugun arren, Eskoriatzako hutsunea betetzea lortu dugu".

Elkartearen asmoa zaharren egoitzan ekintza gehiago egitea denez, taldea handitu arte egongo direla esan du Tomas Atxa Nagusilaneako kideak. "Ekintzak egiteko bolondresak behar dira eta herritarrei parte hartzeko deia egiten diegu".

Izan ere, hiru kideekin zer edo zer egin badaiteke ere, taldea

handitzea ezinbestekoa dela dio Atxak. "Taldea handitzen dugunean astean ekintza bat egin nahi dugu".

Lehenengo ekintza

Orain arte ez bezala, martitzenean musika emanaldia egon zen egoitzan, estreinakoz. Inaxio Murua eta Roberto Alvarez musikariek giro ona jarri zuten eta nagusiek, ondo pasatzeaz gain, ondo-ondo ezagutzen zituzten abestiak abestu ere egin zituzten.



ASIER ALKORTA

Txistorra jana Olazar elkartearen

Eguaztenean Santo Tomas eguna ospatu zuten Olazar jubilatuen elkartearen. Txistorra janarekin hasi ziren bertaratutakoak egun ospetsua ospatzen. Ondoren, urtero egiten duten zozketa egin zuten eta bazkideen artean opariak banatu zituzten. Ospakizuna 18:30ean hasi zen eta berandura arte luzatu zen. Denak gustura ibili ziren..

Josten ikasteko tailerra antolatu du Amuskak

A. A. | ESKORIATZA

Amuska elkarteak Oinarrizko joskintza tailerra antolatu du urtarrilerako. Ikastaroa urtarrilaren 9an hasi eta martxoaren 12ra arte egingo da, astelehenetan. Izena emateko epea gaur amaitzen da.

"Gizonek, emakumeek, gazteek eta umeek parte hartu dezakete", esan dute Amuskakoek. Bazkideek 32 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu nahi badute; gainontzekoentzat prezioa 47 eurokoa da. Interesatuak elkartearen kontu korrantean (3035-0044-85-0441021091) sartu beharko dute dirua. Zalantzak argitzeko elkartera deitu daiteke (699.786.684).

Ikastaroa astelehenetan egingo da, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

Presoen senideendako garraiorako diru laguntzak, eskuragai

EAEtik kanpoko epaitegietara joan behar diren auzipetuei ere laguntza emango die Udalak

A. A. | ESKORIATZA

Udalak presoen senideendako eta kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrendako garraiorako diru laguntzak ematea onartu du. Laguntza eskatzeko baldintza nagusi bat dago: presoa edo auzipetua eta senideak herrian erroldatuta egotea.

Udalak Euskal Autonomia Erdikiegotik kanpoko espetxeren batean zigortuta edo espetxeratze prebentiboan senitatekoren bat duten familiei lagundu nahi izan die egitasmo honekin. "Horiek ikustera joandakoan izandako gastuei aurre egin ahal izateko laguntzak dira", gaineratu dute Udal ordezkariak.

Auzipetuei ere laguntza

Preso dauden herritarrez gain, EAEtik kanpo dauden epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren herritarrek ere eskatu ahal dute laguntza hau.

Laguntza eskatzeko oinarriak Udalaren webgunean (www.eskoriatza.net) jasota badaude ere, laguntza eskatzekoan, guztiak, eskatzailea eta presoa edota auzipetua, herrian erroldatuta egon behar dira laguntza eskatzen duten momentuan bertan.

Laguntza jaso nahi dutenek, hilaren 31 baino lehen udaltxean eskuragai dagoen inprimaki bat bete eta aurkeztu beharko dute.

Presoen eskubideen aldeko mozioa onartu du Udalak

PSE-EEk ezezkoa bozkatu zuen eta EBkoak eta Elizateetakoak abstenitu egin ziren

A. A. | ESKORIATZA

Udalak euskal presoen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen joan den asteko ostegunean egindako osoko bilkuran. Mozioarekin, presoen eskubideak errespetatzeko eskatu eta urtarrilaren 7ko mobilizazioekin bat egin dute hautetsiek.

PSE-EEko zinegotziak mozioaren aurka bozkatu zuen eta Ezker Batua eta Elizateetako zinegotziak abstenitu egin

ziren; gainontzekoek alde bozkatu zuten.

Mobilizazioak

Dispertsioaren amaiera eta preso guztiak Euskal Herriratzea eskatzeaz gain, Udal hautetsiek urtarrilaren 7ko mobilizazioekin bat egin dute mozioa onartuz. Eta bide beretik, herritarrei ere "ezberdintasun politikoen gaineratik" mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete.

Gose taldeak Inkertu tabernaren 8. urteurren jaia girotuko du domeka gaueko kontzertuarekin

Inkertu tabernak 8 urte betetzen ditu eta hori ospatzeko jai erraldoia prestatu dute arduradunek. Horretarako, jaia ondo-ondo ospatzeko, Gose taldeak kontzertua eskainiko du tabernan bertan, 23:00etan. Orain arte Inkertu tabernan egin diren kontzertu guztiak bezala, domekako kontzertu hau ere doakoa izango da eta herritarrei bertara gerturatu eta ondo pasatzeko gonbitea luzatu nahi izan die tabernako arduradunek eta Aitzorrotz elkarteko kideek.

Gabonetako parkea astelehenetik eguenera arte egongo da zabalik, igerilekuan eta kantxan

Astelehenean eta martitzenean puzgarriak igerilekuan egongo dira, 11:00etatik 13:00etara 11-13 urte bitartekoentzat, eta 17:00etatik 18:30era 0-6 urte bitartekoentzat. 7-10 urteko umeek 18:30etatik 20:00etara edukiko dute jolasteko aukera. 28an eta 29an aldiz, parkea kantxan egongo da: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Lau egunetarako txartelak 12 euroko prezioa dauka. Egun bakarreko txartelaren kasuan, igerilekukoak 3 euro balio ditu eta kantxakoak 5 euro.

Urtero legez, San Josetik jaitsiko dira Olentzero eta Mari Domingi

Goizean eskolako umeak ibiliko dira herriko kaleetan kantuan, Pausoka guraso elkartearen eskutik

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Bihar, zapatua, Olentzero eta Mari Domingi ongi-etorria egiteko eguna izango da Antzuolan.

Goizean, 11:00etan batuko dira eskolako ume eta gurasoak Errekalden kantuan egiteko (euria bada eskolako aterpean batuko dira). Errekalden hasi eta herrian behera egingo dute kalejira, trikitilari eta txistulariek lagunduta. Herriko zenbait puntutan geldialdia egin eta kantuan egingo dute.

Olentzeroren jaitsiera

Iluntzean, 18:30ean iritsiko dira herrira Olentzero eta Mari Domingi; San Josetik behera etorriko dira, argi-zuziekin. San Josepetik plazara egingo dute kalejira Olentzero eta Mari Domingi, txistulariekin batera.

Euririk ez bada, plazan egingo da ekitaldi nagusia. Bertan ongi-etorria egingo zaie Olentzero eta Mari Domingiri. Dantza egingo diete Oinarineko dantzariak eta bertsoak abestuko dituzte 6. mailako ikasleek. Mari Domingi egingo du berba *Horra Mari Domingi* abestiaren ostean eta zenbait herritarrek eskaerak egingo dizkiete bi protagonistei. Iratxoak ere etorriko dira Olentzero eta Mari Domingiri laguntzera eta beraiek jasoko dituzte antzuolar guztien eskutitzak. *Hator hator* kantua abestuz bukatuko da ekitaldia. Luntxa eskainiko dute Ez Dut Moztuko Bizarra taldeko kideek.



Olentzero eta Mari Domingi, iaz. | JAVIER SORIA

Gabon kantuan, baserriz baserri

Eskubide zibil eta politikoen alde egiteko taldea sortu da herrian: Ez Dot Moztuko Bizarra. Herrian egingo duten lehen ekintza izango da Gabon kantuan irtetzea. Goizeko 08:00etan batuko dira plazan baserriz baserri kantuan egiteko; Olalden bazkalduko dute. 16:30ean umeendako jolasak eta eskulanak egingo dituzte Zurrategin.



Taldearen logoa. | EZ DOT MOZTUKO BIZARRA.

Musika eskolako ikasleen kontzertua

Antzuolan musika ikasten ari diren gaztetxoek Gabonetako kontzertua egin zuten astelehenean Torresoroan. Musika eskolako 40 bat ikasle parte hartu zuten, instrumentu ezberdinak joz: gitarra, trikitixa, pianoa, flauta eta saxofoia. Bukatzeko, umeen abesbatzakoek abestu zuten.



USOA AGIRRE

Omenaldia egingo diote Aitor Mendizabal pilotariari

U.A. | ANTZUOLA

Martitzeneko ezohiko osoko bilkuran Aitor Mendizabal 2. mailako lau terdiko pilota txapeladunari herriko bandera ematea onartu zuen udalbatzarra aho batez. Gaur, egubakoitza, plazan egingo den omenaldi-ekitaldian emango diote bandera.

19:15ean hasiko da omenaldia herriko plazan. Alkateak herriko bandera emango dio Mendizabali eta trikitilariak alaituko dute ekitaldia. Horrez gain, pantaila baten emango dute Mendizabalen bizitzako argazkiekin egindako argazki-muntaia. Ondoren kalejira egingo dute trikitilariak.

Olaldeko omenaldia

Abenduaren 31n umeen Gabonetako txapelketako finalak izango dira frontoian eta bertan omenalditxo bat egingo diete Olaldekoek Mendizabali.



Mendizabal, txapelarekin. | A. EZKIBEL

Umeendako klown saioa egingo dute martitzenean, Oihulari klown taldearen eskutik

Oihulari Klown taldeak *Alfonbra majikoa* izeneko antzezlanaren taularatuko du martitzenean, hilak 27, Torresoroako aretoan. 18:00etan hasiko da emanaldia eta sarrera 3 euro kostako da. Oihulari Klownek umeendako sortutako klown ikuskizuna da *Alfonbra majikoa*.

Gabonetako pilota txapelketa jokatu dute umeek astelehenean bitartean

Abenduaren 26tik 30era bitartean benjamin, alebin eta infantil mailako kanporaketak jokatu dituzte Arrasaten, Oñatin eta Antzuolan; abenduaren 31n, berriz, finalak izango dira Antzuolan, 10:00etan hasita. Antzuolako lau bikotek parte hartuko dute txapelketan: bik benjamin mailan eta beste bik alebin mailan.

Etxeko hondakinak ateratzeko egutegi eta ordutegi bereziak egingo dira Gabonetan

Abenduaren 24an eta 31n, eta urtarrilaren 5ean ez da hondakinak jasotzeko zerbitzurik egingo. Hala, abenduaren 25ean errefusa, organikoa eta kartoia atera beharko dira; abenduaren 1ean, errefusa eta organikoa; eta urtarrilaren 6an, ontziak eta organikoa. 22:00etan atera behar dira denak. Ontzi arinendako edukiontzia egingo da Sanjosepen, abenduaren 23tik 26ra. Abenduaren 25ean, beira edukiontzien ondoan laga behar da kartoia

OHARRAK

PALAKO FINALERDIA

Gaur, egubakoitza, 20:30ean larruzko paletako finalerdia jokatu dute Antzuolan Olaldeko Manso eta Alberdik Ordiziako Oianguren aurka.

URTE HASIERA ARROLAN

Ohiturari jarraituz, urte berriari ongi-etorria egingo zaio Arrola mendian urtarrilaren 1eko goizean. Hamaiketako egongo da bertara joandakoendako.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zeorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Olentzerok, menditik jaitsi ostean, Herriko plazan egingo du geldialdia, 18:00etan. | ITSASO LOPEZ DE BERGARA

Olentzero eta gaztaina erre usaina, plaza hartzera

Ikazkin maitatuena bihar helduko da Aramaiora (18:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Gabonetarako egitarau zabala prestatu du Udalak herriko kultur taldeen laguntzaz. Arabako Diputazioaren dirulaguntza ere jaso dute zenbait ekitaldi antolatzeko. Bihar izango da egitarauko egun handienetako bat, izan ere, Olentzerok menditik haren traktorean jaitsi ostean geldialdia

egingo du Herriko plazan. Euskal Herriko ikazkin maitatuenak eskutitzak jasoko ditu txikieneen eskutik, guraso elkarteak kideek gaztaina errearen banatzen dituzten bitartean. Eguraldi txarra egiten badu udaletxeko arkupeetan egongo da Olentzero, eta Papargorri abesbatzakoek Gabon kantak abestuko dituzte.

Txirritolak, 'Buah Txabal!'
Ondoko taulan ikusgai dagoen Gabonetako ohiko beste ekitaldien artean Txirritola euskara elkarteak antolatu duen *Buah Txabal!* antzezlan nabarmendu beharra dago. Gazteez eta eleaniztasunaz diharduen bakarriketa umoretsua da, Jon Zubiaga *Osoron*-en eskutik. Unai Iturriagaren lana da.

GABONETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 24, ZAPATUA

18:00 Olentzeroren etorrera, AMPAK antolatuta.

ABENDUAK 26, ASTELEHENA

12:00 Umeendako tailerrak ludotekan. 5 urtetik beherakoak gurasoekin joan beharko dira.

17:00 Txotxongilo emanaldia umeendako kultur etxean.

ABENDUAK 27, MARTITZENA

12:00 Umeendako tailerrak ludotekan. 5 urtetik beherakoak gurasoekin joan beharko dira.

17:00/18:00 Ipuin kontalari saioak.

ABENDUAK 28, EGUAZTENA

12:00 Umeendako tailerrak ludotekan. 5 urtetik beherakoak gurasoekin joan beharko dira.

17:00 Magia ikuskizuna.

ABENDUAK 29, EGUENA

09:15 Bilboko PIN jolas parkera irteera. 10 urtetik beherakoak heldu batekin joan behar dira.

ABENDUAK 30, EGUBAKOITZA

22:30 Buah Txabal antzezlan, Txirritola euskara elkarteak antolatuta.

ABENDUAK 31, ZAPATUA

00:00 Txin-txin A.T.G.A.-k antolatuta

URTARRILAK 1, DOMEKA

Goizean zehar Orixolera mendi martxa.

URTARRILAK 2, ASTELEHENA

17:00 Umeendako dantzaldia kiroldegian.

URTARRILAK 3, MARTITZENA

17:00 Antzerkia kultur etxean

URTARRILAK 4, EGUAZTENA

12:00-14:00 eta 16:00-19:00 Umeendako jolas parkea kiroldegian.

URTARRILAK 6, EGUBAKOITZA

19:30 Bertso saioa kultur etxean: Sebastian Lizaso, Manex Agirre, Julio Soto eta Hodei Barroso.



Barazkiak dira nagusi, baina haragia, arrautzak, esnea eta gazta ere hasi dira sartzten martitzeneroko saskian. | J.B.

Azken egunak Aramailur taldearekin bat egiteko

Kontsumo taldekoa egiteko azken eguna, hilaren 31a; martitzenero plazan batzen dira, 19:00etan

J.B. | ARAMAIO

Aramailur kontsumo taldea kide berrien bila dabil. Ia urtebete dihardute martitzenero 19:00etan udaletxeko arkupean elkartu eta Aramaioko bertako produktu ekologikoez osatutako otzarak jasotzen. Mikel Ocea taldeko presidentek azaldu du esperientzia posible dela: "Gurea kontuan

hartzeko beste irteera bat da, bertako produktuak kontsumitzeko modu arduratsua".

Taldea, handitzeko gertu

Ez dago baldintza aipagarriarik kontsumo taldeko kide egiteko. Egokiena da martitzenean 19:00etan udaletxeko arkupea joan eta funtzionamenduaren berri ber-

tatik bertara jasotzea. Izan ere, taldea handitzeko moduan daude orain eta ateak zabaltzen gura dute kontsumo taldeko kide izatea gura duten guztiak: "Zuk ere produktu osasungarriak nahi badituzu eta kontsumitzeko era arduratsua baten bila bazabiltza, hurbildu edozein martitzenean udaletxeko arkupea eta informatu", jakinarazi dute.

Kontsumo taldearen gainean informazioa jasotzeko beste modu bat da aramailurtaldea@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaltzea. Interesatuak urtea amaitu aurretik, abenduaren 31a baino lehen, egin beharko dute eskaera.

Murrizketak direla-eta Bilduk mozioa aurkeztuko du

J.B. | ARAMAIO

Urteko azken plenoa abenduaren 28an egingo da eta Udalak aurreratu duenez, Bildu taldeak mozio bat aurkeztuko du, dirulaguntzetan jasotzen ari diren murrizketak salatzen: "Udal hau oso kezkatua agertzen da Aldundiak hainbat diru laguntza zein hurrengo urteetara begira konprometituta partidak bertan behera utzi dituelako, horregatik Kontzeju, Udal eta Koadrilekiko diru laguntza eta konpromiso guztiak eusteko eskatzen dio Aldundiari, baita Toki Erakunde guztiak berdintasunez eta diskriminaziorik gabe tratatuko dituela bermatzea ere", diote, besteak beste, mozio horretan.

Gainera, finantziario programa ezberdinetako partidak ez murrizteko eskatzen diote Bildu Nagusiei eta Aldundiari. Eta, bereziki, aurreko Obra eta Zerbitzu Foru Planaren barruan egin ez ziren obren ondorioz berreskuratutako 12 milioiko laguntza planari lotuta jarraitzea eskatzen dute.

Orixol elkarte, bazkideak federatzeko izapideekin

Orixol mendizale elkarte bazkideak federatzeko izapideekin dabil, abenduaren 31a baino lehen Euskal Mendizale Federazioan izena emanda egon daitezen. Hala, urtarrilaren 1etik aurrera mendiko aseguru izango dute federatzeko eskaera egin dutenek. Domeka izan zen horretarako azken eguna. Bestalde, bazkide berriei ateak zabalik dituztela gogoratu dute Orixolekoek. Urteko kuota hamar euro da; haurrendako, berriz, bost euro.

Hezitzaileendako teknologia berrien ikastaroa, Zigoitian

Gazteekin lan egiten duten hezitzaileendako jardunaldi bereziak antolatu ditu Arabako Diputazioak eta Zuiako koadrilak. Hilaren 27an eta 28an izango dira eta teknologia berrien gaineko oinarrizko hainbat arlo landuko dituzte. Besteak beste, hiru tailer egingo dira, sare sozialen eta ordenagailu mugikorretarako aplikazio praktikoaren gainean. Txikienei interneterako sarbidea kontrolatzeko hitzaldia ere egongo da.

ELGETA



Olentzero, iaz, Elgetako umeen gutunak jasotzen. | LZ

Gaur, 18:30erako espero dugu Olentzero plazan

Ikazkinaren etorrera girotzeko txokolate-jana, eskulanen erakusketa eta musika izango ditugu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Egun berezia izango da gaur Elgetako neska-mutikoendako. Txikienek denboratxoa daramate Olentzero etortzeko falta diren egunak kontatzen. Bada, Elgetara bidean da ikazkina. Astoa lagun duela Intxortan behera dator dagoeneko.

Olentzerorekin 18:30erako egin dugu hitzordua Elgetako plazan. Neska-mutikoen gutunak jaso eta gozokiak banatuko ditu. Ikazkinaren etorrera girotzeko, baina, herriko hainbat eragilek ekintzak antolatu dituzte: Maala Guraso Elkartek txokolate-jana egingo du, 16:30ean; eta 17:00etan,

Gabonetako eskulanen erakusketa egongo da. Bada, musikaririk ere ez da falta izango: 18:00etan hasita, Elgetako musika eta trikiti ikasleek emanaldia egingo dute.

Biharko, abenduak 24, Gabon kantuak abestera irteteko dei egin du Guraso Elkartek. 10:30ean elkartu, eta kalez kale ibiliko dira Gabon kantuak abesten. Amaitutakoan, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Haur parkea

Hurrengo egunetarako ere ez da ekintzarik falta izango: abenduko azken asterako Gabonetako haur parkea, Txirikil elkartek ludotekan antolatutako ekintzak eta abenduaren 30erako Espaloian egingo den Gabonetako jaialdia daude iragarrita.

Eta Urtezahar egunean pilota txapelketetako finalak jokatuko dituzte. Urtero moduan, eguerdi partean jokatuko dira, Udal Pilotalekuan.

Urtarrilean

Eta urte berriarekin batera ekintza gehiago etorriko dira: urtarrilaren 2an, astelehena, 3 eta 10 urte bitarteko umeendako jolasak egingo dituzte ludotekan eta biharamunean, bi zinema emanaldi egingo ditu Txirikil elkartek Espaloian.

Disko-festa ere egongo da aurten: urtarrilaren 7an egingo dute, 18:00etatik 21:00etara. Gabonetako agenda www.goiena.net/elgeta-en duzue ikusgai.

Pilota txapelketako finalistak erabakita, Urtezahar egunean jokatuko dira finalak Udal Pilotalekuan

40 urtetik gorako txapelketako bikote finalistak Alex Arantzabal-Iñaki Izagirre eta Angel Ibarluzea-Alberto Telleria dira; 40 urtetik beherakoetan, berriz, Odei Zenitagoia-Andoni Elortza eta Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga. Bolo txapelketan, berriz, Beñat Leanizbarrutiak eraman du lehen saria, bigarren egin du Olaitz Rodriguezek eta hirugarren Geaxi Ezpeletak.

Elgetako udalbatza abenduaren 27an, martitzena, elkartuko da 2012ko aurrekontua erabakitzeko

Elgetako alderdi politikoen mahai gainean dute 2012ko aurrekontuaren zirriborroa. Oxel Erostarbe alkateak urtea amaitu aurretik onartu gura du datorren urteko aurrekontua, eta, adierazi duenez, abenduaren 27an egingo dute osoko bilkura. Udalbatza 19:00etan batuko du osoko bilkuren aretoan. Egitasmo garrantzitsuen artean daude Domingo Iturbe gunearren bigarren faseko lanak, eraikina botatzea eta urbanizazio lanak egitea.

Anthony Blake mentalistak Espaloian estreinatuko du ikuskizun berria, eta sarrerak salgai daude

No vengas solo ikuskizunarekin dator honakoan Anthony Blake Elgetara. Ikuskizun berri-berria da eta Espaloian estreinatuko du urtarrilaren 13an eta 14an. Ez da oharkabean pasako den ikuskizuna, bizitzaz hara indiko elementuekin egingo du-eta saioa mentalista entzutetsuak. Sarrerak salgai daude dagoeneko. Prezioa 18 euro da; bazkideendako, 15 euro. Gogoratu beharra dago Kultura Bona erabil daitekeela Espaloian.

Pagatzako estazio meteorologiko berria abian da

LZ | ELGETA

Estatuko Agentzia Meteorologikoak, AEMETek, ipini du estazioa Elgetan. Temperatura, haizea-abiadura eta noranzkoa-, prezipitazio eta hezetasun datuak hartzen ditu; sei orduan behin jasoko dituzte agentzian. Bada, modem kontuak direla-eta, komunikazio arazoak dituzte, baina agentziaren asmoa da Elgetan jasotako datuak lehenbailehen www.aemet.es atarian txertatzea.

AEMETeko Jose Luis Sebastian Aldak adierazi duenez, hiru hilabete behin pasako dira teknikariak estazioaren mantentze-lanak egitera. Udalak, berriz, udal webgunean txertatuko ditu datuak.



Industrialdearen puntan dago estazio meteorologiko berria. | LZ

LEINTZ GATZAGA

Olentzero lagun hartuta Gabon kantuan ibiliko dira bihar goizean Gureleko kideak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Urteroko hitzorduari ez diote hutsik egingo Gureleko umeek eta gurasoek, eta Olentzero lagun dutela kantuan ibiliko dira bihar, Gabon eguna. 09:30erako egin dute hitzordua Herriko Plazan eta bi taldetan banatuko dira gero. Batzuk baserrietara joango dira autobusean, eta beste batzuk kalean geratu. Lanak bukatuta-

koan, eguerdi partean, guztiak elkartuko dira Toki Eder elkartean, eta bertan bazkalduko dute. Herritarrei dei egin diete anima daitezela ekintzotan parte hartu eta Gabonak girotzera.

Kantuan dabilzan taldeek, gainera, oparia eramango diete herritarrei: 2012ko egutegia. Udalak urtero argitaratzen du herriko baserrien argazkiekin, eta

aurten, Arabako mugan dagoen Inurritxa eta Goierrri auzoko Agarre agertzen dira.

Argidun apaingarriak

Aurreko urteetako jaiotza eta Olentzerorik ez, baina Gabonetako apaingarriak jarri dituzte Gureleko kideek egunotan; argidun apaingarriak, hain zuzen. Plazako zuhaitzetan, udaletxean, pilotalekuan... jarri dituzte eta herria oraindik gehiago apaintzeko asmoa agertu dute elkarreko kideek.

Beak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Andra Mari 2 ELGETA Tel.:943 76 80 98

Gamon zoriontsuak!

Artekale 2 ELGETA • Tel.: 943 76 82 84

Gabon zoriontsuak elgetar guztioi!

Gudarien bidea 6 ■ 943 76 81 07 ■ Elgeta



Mondragon Unibertsitateko gazte mailako jokariak, klubeko eta Euskadiko Kutzako ordezkariak, astelehenean egindako aurkezpenarean. | XABIER URTZELAI

SASKIBALOIA

Gazte mailako saskibaloia onena izango da, abenduaren 26an hasita, Iturripeko kantxan

- ▶ Gazte mailako sei talde izango dira; tartean, nafarrak, errioxarrak, aragoiarrak eta kataluniarrak
- ▶ Bi multzotan banatu dituzte taldeak, eta onenek abenduaren 28an jokatuko dute finala

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Gabonetan Iturripen saskibaloiak ez du atsedetik hartuko. "Saskibaloia sustatzeko, Gabonetan herrian kirol eskaintza erakarria egon dadin eta kanpotarrei gure herriaren berri emateko" antolatuko du Ointxe!-k saskibaloia txapelketa, dagoeneko laugarren edizioa. Astelehen ilunkean aurkeztu zuten torneo, eta Ointxe!-ko presidentek batera Euskadiko Kutzako ordezkariak ere egon ziren aurkezpenarekin -babesle nagusi modura-, baita zuzendaritzako kide eta txapelketa jokatuko duten Mondragon Unibertsitateko mutilak ere.

Bi multzotan banatuta

Txapelketan Gipuzkoako eta kanpotik etorritako sei taldek hartuko dute esku. A multzoan egongo dira Mondragon Unibertsitatea, Utebo eta Lagunak; eta B multzoan izango dira CB Cornell, Clavijo eta Easo.

Talde horien erreposoa eginez, Mondragon Unibertsitateko taldea Euskadi mailan ondo finkatuta dagoen taldea da, talde zuri-mo-

reak harrobi ona du eta etxean jokatuta beste inork ez du izango euren baino motibazio handiagoa. Lagunak Iruñeko taldea da, euren kategorian Nafarroako erreferenteetako bat, eta liga irabazteko faboritoetako bat. Utebo Zaragozatik datorren taldea da; hasiera baten baliteke ez izatea txapelketa eskuratzeko hautagai nagusia, baina adi Aragoikoekin. Eta gauza bera esan genezake Errioxako saskibaloian ohiko talde den Clavijori buruz ere. Easo talde ezagunagoa da, besteak beste, ligan Arrasatekoen kontrario direlako.

Gainera, MUKoek euren kontra jokatu berri dute, eta emaitza ez zen zuri-moreen aldekoa izan: "Hala, errebantxa hartzeko aprobetxatuko dugu", adierazi zuen Jon Basurko presidentek. Azkenik, Cornell da kategoria txikietan Katalunian ondoen lan egiten duen klubetako bat; Bartzelonaren harrobia osatzen duen taldeetako bat da, eta txapelketan gaintu beharreko kontrarioa, izan ere, eurak nagusitu ziren izako txapelketan.

Erosotasun guztiekin

Txapelketa erakargarriago egingeko klubak hainbat neurri hartuko ditu ikusleei begira: taberna jarriko dute Iturripen, eta baita berogailuak ere. DJ bat arduratuko da txapelketa musikaz giroteaz, eta saskibaloia ondo ezagutzen duen Xabi Igoa aramaiorak egingo ditu esatari lanak. Ikusten denez, klubeko ordezkariak detaile txikiak ere izan dituzte kontutan.

Txapelketa antolatu ahal izateko Ointxe!-k eskerrak eman nahi izan zituzten babesle gutxiei. Euskadiko Kutxa eta MU dira babesle nagusiak, baina ez zituzten babesle txikiak ere ahaztu nahi izan: "Euren laguntza gabe ezinezkoa izango litzateke torneo antolatzea, batetik, ekonomikoki ematen diguten bultzada ezinbestekoa delako, eta bestetik, taldeak ondo hartzeko dugun laguntzagatik". Izan ere, egun horietan kanpotik datozen jokalariek unibertsitateko ikasleen egoitzan egiten dutelako lo: "Hala, bidaia baino ez dute ordaindu behar izaten".

TXAPELKETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 26

16:30 MU-Lagunak

19:00 Easo-Clavijo

ABENDUAK 27

10:15 Utebo-Lagunak

12:15 CB Cornell-Clavijo

16:30 MU-Utebo

19:00 CB Cornell-Easo

ABENDUAK 28

10:00 Ako 3.a - Bko 3.a

11:15 Ako 2.a - Bko 2.a

12:30 Finala

14:15 Sari banaketa

Atsedendietan infantilen partiduak izango dira.

PILOTA

Gabonetako Pilota Topaketako finalak Antzuolan

Debagoieneko Eskoletako benjamin, alebin eta infantilen arteko pilota topaketak egingo dituzte abenduaren 26an hasi eta 31ra arte Antzuolan, Oñatin eta Arrasaten. Hala, ibarreko pilotari gazte mordoak lehiatuko da torneoan. Finalak Antzuolan jokatuko dituzte, 31n, 10:00etan hasita.

SQUASHA

Abenduaren 28an egingo dute Olentzero squash topaketa

Arrasateko AKE Squash taldeak antolatuta, abenduaren 28an squash topaketa egingo dute Musakolako kantxan. Squashean dabiltzanei eta kirol hori ikasi nahi dutenei dago zuzendua. Gaur, abenduak 23, da izena emateko azken eguna (656 73 60 17). Erraketarik ez duena egon dadila lasai, klubak jarriko ditu.

FUTBOLA

Mondrak 'Txelis'-en oroimenezkoa jokatuko du urtarrilaren 5ean

Mondra Futbol Taldeko kide izan zen Jose Luis Ibarguen Txelis zenaren omenezko futbol torneo jokatuko dute urtarrilaren 5ean, Mojategin. Torneoa infantil txiki kategoriako gaztetxoendako izango da, eta, azken urteotan bezala, Gipuzkoako hainbat talde etorriko dira Arrasatera; 09:30ean hasiko dute txapelketa.

FUTBOLA

Bixente Etxeandia futbol txapelketa, hilaren 26an hasita

Aretxabaletako futbol taldeak antolatuta, Bixente Etxeandiarren Gabonetako torneo jokatuko dute abenduaren 26tik 29ra. Hilaren 26an, 2003an jaio zirenek jokatuko dute; abenduaren 27an, 2001koek; eta abenduaren 29an, 2002koek. Finalerdiak eta finalak, berriz, urtarrilaren 2an jokatuko dituzte.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra

Zorionak eta Urte berri on!



ATLETISMOA

Oñatin eta Eskoriatzan korrika eginez esango diote agur 2011. urteari

Oñatin 16:30ean hasiko dute San Silbestre proba eta Eskoriatzan, 17:00etan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Bakoitzak bere izenaz, baina azken finean, San Silbestre lasterketa korrituko dute abenduaren 31n Oñatin eta Eskoriatzan.

Eskoriatzan goizetik hasiko dira Silbestradie-kin, 12:00etan

hasita 14 urtetik beherakoendako lasterketak egingo dituzte-eta (izen-ematea 10:30ean). Arratsaldean, berriz, Lehen Milia Eskoriatzara, Manolo Muñoz Saria korritu aurretik brindisa egingo dute, 16:55ean. Eztarriak berotu

eta bost minutu geroago hasiko dute proba. Urte askotan Silbestradie lasterketa baino hainbat herritarrek egiten zuten atletismo-hitzordua izan da; lagunartean batera korrika egitea zen asmoa, eta azken kilometroan nahi zutenek aurrera egiten zuten. Aurten bultzada emango diote proba horri, eta 17:30ean luntxa egiteko elkartuko dira.

Oñatin, orduerdi lehenago

Oñati da San Silbestre lasterketak harrera beroena duen herria, jende mordo animatzen delako zazpi kilometro pasatxoko ibilbidea duen lasterketa egitera. Hala, aurten 16:30ean hasiko dute proba, ilunkerako poteoaz lasaigo gozatu ahal izateko.

Antolatzaileek erabaki dute izen-ematea egunean bertan jarzea (3 euro), baina korrikalariei eskatu diete denboraz ibiltzeko. Oñatiko Gaztelekuan 16:15ak arte egongo dira izenak hartzen, ez gehiago. Oñatin, baina, gazte-xoenek ere egin ahal izango dute korrika, 16:00etan jarriko dituztelako eurendako lasterketak. Hala, parte-hartzearen korrikalari bakoitzak opari txiki bat izango du, eta amaieran zozketak izango dira.



Santamas lasterketako erretratua, domekan. | JULIO CALLEJA

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak Gipuzkoako eta Arabako selekzioen kontra jokatu du 26an, Manuel Muñozen omenez

Eskoriatzako areto futbol taldeak hiruko torneoa antolatu du abenduaren 26rako. Hala, Euskadiko Txapelketan lehiatu dabiren taldeak Gipuzkoako eta Arabako selekzioen kontra jokatu du, 18:00etan hasiko den lagunartekoan. Hala, torneoa Manuel Muñoz presidenten ohia omenduko dute.

FUTBOLA

Emakumezkoen Gabonetako futbol txapelketa abenduaren 31n eta gaztetxoena abenduaren 30ean

Arizmendik antolatuta, Gabonetako emakumezkoen futbol txapelketa egingo dute urteko azken egunean. 09:30ean hasita, aurrez aurre izango dira Debagoieneko selekzioa, Eibar, Athletic eta Realak, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. Egun bat lehenago kategoria txikietako talde mordo batuko dira Ibarra futbol zelaian, horiek ere emakumezkoak, futboleko jokatzeko.



ESKALADA

DEBAGOIENKO ESKALATZAILEAK

Xumeago eskalatzen ere ondo

Azken urteotan Debagoieneko Eskalatzaileak taldeak eskalada txapelketa handiak antolatu izan ditu Santamasetan; besteak beste, Euskal Herriko txapelketa antolatu izan dute Uarkapen. Aurten, baina, hitzordu xumeagoaren aldeko apustua egin dute, Eskalada Eskolako gazteekin eta herri mailako eskalatzaileekin. Goian talde erretratua.



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS

2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Mondeo 1.8 TDCI 19.800 €
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- Ford Focus TDCI 115 ZP 6 abiadura 17.500 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- Ford Focus TDCI 140 ZP 19.800 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Focus TDCI 110 ZP 10.500 €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- Ford Kuga TDCI-4W 140 ZP 24.400 €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 13.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km
- Nissan Pathfinder XSE TDI 174 ZP 14.500 €
2005 | Diesela | Grisa | 130.000 Km
- Toyota Land Cruiser UX 170 ZP 18.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 120.000 Km



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT

2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 138BHP DPF 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



15.000 €

> Citroën DS3 1.6 HDI Special Edition II

2011 | Diesela | Gorri argia | 2.500 Km

CHAPIME

SAN ANDRES AUZOIA 5
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Citroën C4 1.6 VTI Cool 8.950 €
2009 | Gasolina | Txuria | 33.150 km
- Citroën C4 1.6 HDI Cool 110 FAP 11.850 €
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 km
- Citroën C4 1.6 HDI Cool 11.000 €
2010 | Diesela | Gris argia | 47.000 km
- Citroën C4 G. Picasso 1.6 HDI Milenium CMP 21.500 €
2011 | Diesela | Gris argia | 1.500 km
- Citroën C8 2.0 HDI Premier 138 22.300 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 35.000 km
- Citroën C8 2.0 HDI Premier 21.600 €
2010 | Diesela | Gris argia | 27.800 km
- Citroën DS3 1.6 e-HDI Special Edition 15.000 €
2011 | Diesela | Gorri argia | 5.000 km
- Hyundai i30 1.6 CRDI Comfort GLS 11.300 €
2010 | Diesela | Txuria | 10.110 km
- Citroën DS4 1.6e-HDI Style CMP STT 22.500 €
2010 | Diesela | Marroi iluna | 5.500 km
- Citroën DS4 1.6e-HDI Design STT 21.500 €
2011 | Diesela | Urdin iluna | 1.000 km

Orlando eta Captiva: potentzia eta diseinua

Chevroletek Orlando eta Captiva berri ditu, eta potentzia, diseinua eta zabaltasuna hobetu | M. GALILEA

Argi dago Chevrolet auto etxeak potentziaren eta diseinuaren alde apustu gogorra egin duela, eta horren emaitzak Orlando eta Captiva modelo berrietan ikus ditzakegu. Bi horiek gamako potenteenak dira, 163 eta 184 zaldiekin, hurrenez hurren; toki handiagoa eskaintzen dute eta diseinu berri eta erakargarriarekin aurkeztu dituzte. Amerikar estiloarekin bata eta kirol linearekin besteak, ez gaituzte axolagabe utziko, eta, zer esanik ez, barruko akaberak ikusita.



Orlando berria: erosotasuna, potentzia eta diseinua. | CHEVROLET



Captiva berria: potentzia, zabalera eta erosotasuna. | CHEVROLET

ORLANDO

Gama bereko gainontzeko autoek baino potentzia eta azelerazio handiagoa eta ekipamendu osoa dauka Orlandok. Chevrolet etxeak erosotasunaren, potentziaren eta berriro ere diseinuaren alde egin du, oraingoan, amerikar estiloa gogorarazten digun monobolumen horrekin.

Barnealdea ere ikusgarria da. Bezeroa eta haren familia eroso egon daitezten, neurriak zabaldu dituzte modelo horretan, eta 4,65 metroko luzerarekin gamako handiena da. Auto horretan ere ez da detailerik falta, bai atzealdeko bidaiarentzat dauden osagarriak esker eta baita aurrekoek duten zabaltasuna kontuan izanda. Gainera, gusturago gidatzeko bolantea erregulatzeko aukera, zirkulazioa hobeto kontrolatzeko eserleku altua eta nabigatzailea ere gehitu dizkiote.

Bestalde, eta oso prezio ona izateaz gain, hiru urteko bermea du eta doako mantentze-lanak eskaintzen dituen bakarra da.

CHEVROLET ORLANDO

Prezioa: 24.700 €

Potentzia: 163 ZP

Abiadura: 195 km/h

0-100 km/h: 10,0 segundo

Airbagak: gidaria, kopolotua, albokoa eta kortina.

Segurtasun gailuak: ABS/EBD/TCS/ESC.

Bermea eta doako mantentze-lanak: 3 urte.

Ordenagailua eta GPSa: Bai.

Zilindrada: 1.998 cm³

Aire-girogailu automatikoa: Bai.

Neurriak: 4,65 / 1,84 / 1,63 m.

Aleaziozko hangunak: 17".

Irratia: Nabigatzailea, CD, USB eta MP3 sarrera.

Bozgorailuak: 6.

CAPTIVA

Lur orotako ibilgailuen artean potentzia, zabalera eta erosotasunagatik nabarmentzen da Captiva.

Modelo berriak kanpotik luxuzko kirol diseinua du, eta

erakargarria, eta izaera eta nortasuna irabazi ditu, aurrekoa hobetuta. Barnealdean ere kalitate handiko materialak ditu, eta larruzko tapizeriak eta dituen akaberak txunditu egiten dute.

CHEVROLET CAPTIVA

Prezioa: 34.545 €

Potentzia: 184 ZP

Abiadura: 200 km/h

0-100 km/h: 9,6 segundo

Airbagak: gidaria, kopolotua, albokoa eta kortina.

Segurtasun gailuak: ABS/EBD/TCS/ESC.

Bermea eta doako mantentze-lanak: 3 urte.

Ordenagailua eta GPSa: Bai.

Zilindrada: 2.231 cm³

Aire-girogailu automatikoa: Bai.

Neurriak: 4,67 / 1,85 / 1,76 m.

Aleaziozko hangunak: 19".

Irratia: Nabigatzailea, USB eta MP3 sarrera eta Bluetooth.

Sentsoreak: euri, argi eta aparkatzekoak.

Gidatzeko lekuaren altuera eta eramateko erraztasuna ere ekipamenduaren kalitatearekin bat datoz. Gainera, haren aldakortasuna maximizatzeko, ekipamendu aproposa du. Zazpi pertsona eroso bidaiatzeko auke

ra emateaz gain, bigarren eta hirugarren eserleku ilarak tolestu eta 1.577 litroko edukierako maletategia lortzen du.

Hiru urteko bermeaz gain, doako mantentze-lanak eskaintzen dituen gamako bakarra da.

CHEVROLETEN 7 PLAZAKO AUTOAK.
APROBETXA EZAZU AUKERA BAKOITZA.

ORLANDO
17.530 € -TIK AURRERA



Munduko Txapelaren motorra, Chevrolet.



CAPTIVA BERRIA
25.160 € -TIK AURRERA



CHEVROLET
MAKE IT HAPPEN

www.chevrolet.es | Informazioa: 902 303 900 | www.facebook.com/chevrolet.es | @Chevroletespana

GIAUTO Elgoibar | Olaso Kalea, 25 | 943 744 012 | GIAUTO Olaberria | B° Yurre, Polígono Karobi, s/n | 943 885 150 - www.giauto.es

Kontsumo mistoa (l/100km): 6,0-7,9/6,4-10,7. CO2 emisioa (g/km): 159-186/170-252. Gomendatutako prezioa Penintsulan eta Balear Uharteretan. Orlando 1.8 LT eta Captiva 2.2 VCDI 16V LT 7 P FWD autoendako (BEZA, matrikulatze zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hil amaiera arte.

KULTURA



Idazkaria, epailea, salatzaileak (bergararrak) eta fiskala; herri epaimahaiak ere parte hartuko du toberan, eta baita akusatuek ere (arrasatearrak). | ARANTZAZU EZKIBEL

Gizarte mugimendua xaxatzea helburu duen lana

- ▶ Abenduaren 28an Debagoieneko tobera egingo dute Amaia antzokian
- ▶ Taula gainean 60 bat lagun ibiliko dira, horietatik 21 antzeztan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ospitalea eta Unibertsitatea herrian izatea; Arrasate ala Mon-dragon?; euskaltzetasuna, punkak izatea, kooperatibak... hori guztia eta beste hainbat gai auzitan jarriko dituzte Debagoieko toberan. Bergarako herriak epaituko du Arrasate. Azken epaia, baina, herri epaimahaiak emango du.

Debagoieneko tobera abenduaren 28an egingo dute, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak 7 eurotan daude salgai Arrasateko Ttukun fotokopia-dendan eta Kajoi tabernan; Bergarako Gracian mertzerian eta Bule tabernan; eta *barrabarra.eu* atarian.

Gizarte mugimendua xaxatzea

"Gaur egun Arrasate adierazten duten ikurrak auzitan jarriko dira eta guk ahal den moduan defendatuko dugu gure herria", azaldu du Larraitz Trojaolak, toberako akto-

reetako batek. Ipar Euskal Herrian egiten den antzerki mota bat da, eta oinarria da herriko edo eskualdeko kontuak auzitan jartzea.

Bagarako kulturagintzako sustapen taldetik irteerako ideia da

tobera. "Iñaki Urruzola, lasartearra, Santa Anako toberan ibilia da eta esan zigun eurek badutela horrelako artefaktu sozial bat, herri mailako bizitza saneatzeko baliagarri dena. "Debagoienean

badauzkazue eduki eta debate mailan nahiko maila interesagarria. Zergatik ez dugu Tobera bat egiten? esan zuen Urruzolak", azaldu du Iraitz Agirrek, Bagarako kideak.

Azkeneko bi urteetan Bagararen inguruan ibili diren 15 bat lagun elkarrizketatan oinarritu da toberako gidoia. "Etxeko lana izan zen: ze lau akusazio egingo zenizkioke Arrasateri eta ze lau argudio?", dio Agirrek. Hortik egin dute gidoia.

Aktore ez profesionalak

21 lagun ibiliko dira antzeztan -aktore ez profesionalak-, baina herritarrek ere kontuan hartuta 60 bat lagun igoko dira taula gainera.

Toberaren inguruan beste lagun batzuk ere ibili dira: adibidez, Aitor Sarasua bertsolariak *Arratus Kanpazaris* bertsoak jarri dizkio herri antzeztanari.

ESANAK

"Arrasateko ikurrak auzitan jarriko dira eta guk, defendatu"

LARRAITZ TROJAOLA | AKTOREA

"Ze lau akusazio eta ze lau argudio egingo zenizkioke Arrasateri?"

IRAITZ AGIRRE | BAGARAKO KIDEA

Ezohiko batzarra izango da udaletxean

"Bergarak auzitara eramango gaitu. Zer egin behar dugu horren aurrean?", ezohiko batzarrean argitu beharko dela azaldu dute Agirrek eta Trojaolak. Gaur, egubakoitza, 18:00 inguruan kalean ibiliko dira informazioa banatzen eta 19:00etan ezohiko batzarra egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, ezohiko alkatearekin, ezohiko zinegotziekin... Arrasateko abokatuak herriko eragileei azalduko die Bergarak zelako "ofentsa" egin dien.

GABONETAKO SARIA
IRABAZLEA

ARANTZA
MADINA
ARANBURU



DEBAGOIENeko TOBERA
IRABAZLEAK

- Alberto Trojaola Larrea (Aretxabaleta)
- Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)

SANTAMASETAKO
BERTSO SAIOA
IRABAZLEA

- Karmelo Zabala Iriondo (Aretxabaleta)


Egin zaituzte
bazkide
eta pendrive
bat zuretzako!



..eta gainera zozketan
parte hartuko duzu!

ASTILLERO
ERRETEGIA

bi lagunendako bazkaria



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012

943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €

Gospel soinua, urteroko Gabon doinua Amaian

Chicago Mass Choir taldeak Gospel kontzertua eskainiko du Amaia antzokian gaur, 20:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gabon jaietan ohiko bilakatu da Arrasateko gospel kontzertua. Ahots indartsu eta sakonek girozen dute Amaia antzokia. Aurten, Chicagoko talde bati egokitu zaio Amaia girotzea: The Chicago Mass Choir taldeak eskainiko du kontzertua gaur, egubakoitza, 20:00etan. Sarrerak 20 eurotan daude salgai.

1988an sortutako taldea

The Chicago Mass Choir 1988an sortu zuen James C. Chambersek.

Ordutik hona lan handia egin dute gospel musikan; eta lan hori saritua izan da behin baino gehiagotan.

Azken diskoa 2011ko maiatzean argitaratu zuten: *XV Live*. Hala, Arrasateko kontzertuan azken laneko abestiak eskainiko dituzte. Teneseko TBN Studio Auditoriumean grabatu zuten diskoa 2010eko urrian.

ECC Music Workshop

Nabarmendu behar da taldea ECC Music Workshop elkartearen parte



The Chicago Mass Choir taldea osatzen duten abeslariak. | CHICAGO MASS CHOIR

dela. Munduan erreferente diren musikariek lan egin du Chicagoko gospel taldeak. Besteak beste, Bob Dylanen laguntza izan dute *Gotta Have Somebody* abestian, baita Onirama greziarrena eta Dr. Bobby Jones Show-ena ere.

2003an hasi ziren Europan birak egiten. Suitzian, Kroazian, Italian, Grezian eta Alemanian

ibili izan dira abesten. Euskal Herrira aurten etorriko dira lehengo aldiz.

Bestalde, izen handiko jaialdietan parte hartzen du gospel taldeak: Chicagoko Gospel jaialdian, New Orleansko French Quarter jaialdian eta Los Angelesko Staple Center jaialdian, besteak beste. Maila handiko musikariek entzuteko aukera

izango da, hortaz, gaur, Amaia Udal Antzokian.

ECC Music Workshop

2000. urtean gospel disko onenaren saria eskuratu zuten Chicago Music Award sarietan; eta 2009an urteko abesbatza onenaren saria irabazi zuten Stellar Award sarietan.

Oñatiko gaztetxean giro ezin hobea eta bertsio ezagunak gaur, barikua

A.E. | OÑATI

Oñatiko *Egin dezagun bidea* ekimenak antolatuta, kontzertu berezia egingo dute gaur gaztetxean. Lau talde igoko dira taula gainera: Oñatiko eta Arrasateko CC627; Negu Gorriak taldeari omenaldia egingo dion taldea; Kasik; eta Frantzeska.

23:00etan hasiko da. Aitor Maiztegi, Iñigo Palacios, Beñat

Ruiz, Ander Astigarraga eta Iban Idigorasek osatzen dute Negu Gorriak-i omenaldia egingo dion taldea. Jaietan, *di-bertsioak* kontzertuan, hiru abesti eskaini zituzten; eta gaurko kontzerturako beste zazpi abesti entseatu dituzte: *Hitz egin*, *Oker dabilta*, *Hipokrisiari stop!*, *Kaixo* eta *Itxoi-ten* joko dituzte, besteak beste, Oñatiko gaztetxean.



CC627 taldea, Itxungi jaialdian, Arrasaten. | JOKIN BEREZIARTUA

Lagun arteko giroa

Iban Idigorasek taldekideak azaldu digu lagun artean eta ondo pasatzeko asmoz igoko direla taula gainera. Kontzertua, gainera, duela gutxi hil den Mikel Ugarte Izaera taldeko kideari eskainiko diote.

Arrasateko eta Oñatiko lagunek osatzen dute CC627 taldea. Musikariek gaztetxean apurtuko dute azken sei hilabeteetako isilunea; izan ere, disko berriaren buru-belarri lanean dabilta eta ez dute kontzerturik eskaini azkenaldian.



Jon Urraza eta Jon Zubiaga *Osoron* aktoreak. | JON URRAZA

Jon Zubiaga arrasatearrak antzezlana estreinatu du

Aktore eta zuzendari lanak egin ditu lan berrian

A.E. | ARRASATE

Jon Urraza aktoreak idatzitako antzezlana da -2008an VI. Cafe Bilbao formatu txikiko antzerki gidioen saria jaso zuen-. Zuzendari eta aktore lanak, oster,

Urrazagak berak eta *Osoron* arrasatearrak egin dituzte. *Morritson eta Gartzia: Kultoko Antzezlana* helduentzako komedia da, umorezko antzerki argumentuduna. Zuzenean jotako musikarekin eta

eritmo biziarekin taularatua. Abenduaren lehen estreinatu zuten lana eta abenduaren 6an Durangoko Azokan eskaini zuten, Szenatokia gunean.

Morritson eta Gartzia euren buruak berezitat dituzten 30 urte inguruko galtzaile ameslariak dira. Gainerakoen iritziz, baina, artistatxo alfer lotsagabeak dira.

Elkarrekin, bigarren

Ez da lehenengo aldia Urrazak eta Zubiagak elkarrekin lan egiten dutena. *BoB? Nor da BoB?* antzezlana ibili ziren 2005etik 2008ra. Hain zuzen, Eskoriatzako Inkernu tabernan estreinatu zuten lana, 2005ean.

Olatz Pagaldai ere tartean

Osoron ez da proiektuan dagoen debagoiendar bakarra. Olatz Pagaldai eskoriatzarra antzezlana zuzendari-aholkularia da Sonia Villamorrek batera.

Osoronek, gainera, musika eta abestiak jarri dizkio antzezlariari. Areto barruan antzezteko egindako lana da.

Fiachras-ekin amaituko dute urtea Antton tabernan

A.E. | OÑATI

Egubakoitzero egiten dituzte kontzertuak Oñatiko Antton tabernan; asteon bi izan dituzte: eguaztenean Bastards' Assault taldeak jo zuen eta gaur, egubakoitza, Fiachras bergararren txanda izango da. 19:30ean hasiko da eta aurtengo azken emanaldia izango da.

Bergarako taldeak rock eta folk musika egiten du. Dagoeneko bi disko argitaratu dituzte, eta, hain zuzen, *Hiltzera goaz* bigarren disko abestiak eskainiko dituzte Oñatin. Taberna zuloko abestiak egiten dituztela azaldu dute antolatzaileek, eta baita musika eta parrandarik ez dela falta izango gaur Oñati tabernan.

Biharamuna pasatu, eta lheskideren emanaldira

A.E. | ARRASATE

Biharamun galanta izango dute batzuek Arrasate aldean. Santamasak ospatu zituzten atzo, eta Kooltur Ekintza taldekoek ez zuten aukera alferrik pasatzen utzi: Makala DJaren emanaldia antolatu zuten gaua girotzeko.

Bada, biharamuna pasatu, eta datorren asteko hitzorduari begira jarrita daude. Iheskide taldeak eskainiko du urteko azken emanaldia, abenduaren 29an, 22:00etan. Bost euro kostako da sarrera eta, beti bezala, ordu bete ingurukoa izango da kontzertua.

Urtarrileko emanaldiekin dagokienez, Kooltur Ekintza taldekoek aurreratu dute Gramones taldeak joko duela Arrasateko gaztetxean.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETA | 943 79 96 54



BASABE

Menuak
eta afariak

Basabe poligonoa
ARETXABALETA 943 77 31 19



DORLETA TABERNA

Loteria eta
kinielak

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA



Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 06 57



IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko
janari prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67



Alaine Olabarria | Abeslea eta saxofoi-jotzailea

"Musika maite dut eta nire ametsa musikal baten abestea da; lagian, 10 urte barru..."

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Txikitatik gustatzen zaio musika Alaine Olabarriari, jo eta kantatzea, eta mundu horretan lehenengo pausoak eman dituela esan dezakegu. 16 urterekin, oso argi dauka bizitzan zer nahi duen, eta dituen ametsak ezagutzeko harekin hitz egin dugu.

Nondik datorkizu zaletasuna?

Familiarengandik. Aitak betidanik abestu du, baita gitarra jo ere; txikitik harekin ibiltzen nintzen kantuan. Musika Eskolan 9 urterekin hasi nintzen eta aukeratutako instrumentua saxofoia izan zen; egia esan, ez dakit oso ondo zergatik, baina orduan hasi eta gaur arte segitzen dut. Bestalde, abesbatzan ere urtetan ibili naiz.

Orain dela gutxi Zarautzen ibili zinen kantuan; zer moduz?

Oso gustura egon nintzen. Asteburu bateko abeslari topaketa antzeko bat egiten da Zarautzen; hainbat herrik parte hartzen dute eta koru mistoan edo nesken koruan abesteko aukera dago. Abestiak prestatzen ditugu eta kontzertu bat eskaintzen da Babilio Astulezen eta Jon Aizpururen gidaritzapean. Intentsitate handiko asteburua izan zen.

Bakarlari moduan abestu duzu?

Bai, Zarautzen izan zen hura ere. *Casting* bat antolatu zuten *Oh happy day!* kantua abesteko; aurkeztu nintzen eta eman zidaten; hura izan zen lehenengo aldia. Ondorioz, abesbatzako zuzendariak, Raket Murgiondok, hemengo kontzertuan ere bakarlari moduan abesteko eskatu zidan, eta horrela egin nuen aurreko astean.

Lagunek zer esaten dizute?

Aurreko astean kontzertura joan ziren eta harrিতuta gelditu zirela esan zidaten. Asko gustatu zitzairen eta oso maitatua sentitu nintzen; negar baten amaitu nuen... Asko laguntzen didate.

Eta ikasketak musikaren esparrura bideratu nahi dituzu?

Gurako nuke, baina ez diot irtenbide handirik ikusten; bigarren aukera edo entretenimendu modura utziko dut, ziur asko. Batxilergoa egiten ari naiz, eta hurrengo urtean behin betiko erabakia hartuko dut; ez daukat argi. Oraingoz, abuztuan Turinera (Italia) goaz abestera, Raket Murgiondo zuzendariak animatuta.

Zer esaten dizute etxean?

Betidanik animatu izan naute. Aita mundu horretan sartuta dago eta amak ere asko disfrutatzen du. Dena den, arreta guztia musikan bakarrik ez jartzeko esaten didate, aholku moduan; baina hori bada benetan nahi dudana... egiteko.

Saxofoia, abesbatza... nolako da zure egunerokoa?

Eskolak amaitzen ditudanean bestelakoak ditut arratsaldeetan: astean hiru aldiz ingeleseko eskolara joaten naiz; astelehenetan harmonia ikastera noa, saxoarekin inprobisatzen ikastera; Big Banden ere parte hartzen dut, eta bertan, perkusioak, tronboiak, tronpetak eta saxoak banda bat osatzen dugu; koruko entseguak ere astean behin dira; euskal dantzak egiten ditut; eta egubakoitzetan, banda.

Horrelako agendarekin, baduzu lagunekin egoteko denborarik?

Bai. Lokala dugu, eta asteburuetan elkartzen gara. Orain dela gutxi, saxofoi laukote batekin hasi gara eta gure asmoa ezkontzetan jotzea da. Elgetan egin genuen aurkezpena eta oso gustura egon ginen.

Non eta zelan ikusten duzu zure burua hemendik hamar urtera?

Lanean egon gura nuke, eta Arrasatek kanpo. Herritik kanpo gehiago ikas daitekeela uste dut; independentziak ikasteko aukera handiagoa ematen du. Hala ere, betiko lagunak mantendu nahiko nituzke. Hori bai, musika maite dut eta nire ametsa musikal baten abestea da; beraz, hemendik hamar urtera...

Musikan hasi berri den bati aholkurik emango zenioke?

Lotsa galtzeko esango nioke, horrek oztopo asko jartzen dituelako; eta bigarrenik, animatzeko, dauden gauza guztietan apuntatzeko. Arrasate Musikalera joateko ere esango nioke, bertan asko ikasten delako. Baina beti helburu berekin: disfrutatzea.



Alaine Olabarria, saxofoia eskuetan, Arrasate Musikalen.

PERTSONALA

Herriko txoko maiteena: Arbolapeta, lagunekin bertan elkartu izan garelako.

Egindako bidaiarik onena: Punta Canara.

Kantu gustukoena: Coldplayren *Amsterdam* abestia.

Musika talde bat: Three Doors Down.

Pelikula bat: *El diario de Noa*.

Amets bat: Musikal baten abesteko aukeratua izatea.

Gosari gustukoena: Laranja-zukua, ogi txigortua eta jogurta.

Pertsonaia famatu bat: Cristina Aguilera.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoa 1 zerbaki etxebizitza salgai. Berritua. 120.000 euro negoziagarriak. 943 72 27 86

Arrasate. 65 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Bi logela eta egongela handia. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 168.000 euro. 616 84 55 96

Bergara. Etxebizitza eguzkitsua salgai Artzamendi kalean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia eta egongela handia. Garaje eta trastelekuarekin. Jantzia. 150.253 euro. 629 97 37 05 edo 943 76 05 22

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 252.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Inigo. 659 72 06 64

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldia, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. 605 43 29 31

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu, ikasleentzat. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. 650 02 79 29 edo 943 79 99 63

Eskoriatza. Erdigunean bi logelako apartamentua saldu edo errentan ematen da. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 667 40 86 67

Oñati. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Etxebizitza ekonomikoaren bila. Bikote langilea, umerik gabe, pisu txiki (1-2 gela) edo etxebizitza ekonomiko bila (400 euro) Arrasate, Onati edo Bergaran. 652 76 67 04

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko, Erguin aldean. 670 59 73 62

Arrasate. Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. Ione. 636 05 36 18

Arrasaten. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 630 71 35 83

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Marco. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 696 38 10 07

Logelak Arrasaten. Arrasaten pisukide bila gabiltza-neska zein mutil-urtarriletik aurrera gela bat betetzeko. Pisu alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela ditu. Alokairua gehi wifi eta telefonoa gehi gastuak, 220 euro pertsonako dira hila-beteko. Animatu eta deitu. 665 71 69 10 edo 943 77 07 00

Logelak Arrasaten. Erasmus etorriko diren ikasleentzako logelak behar dira otsailaren Tetik ekainaren 30era. Ingelesa praktikatzeko aukera ona da. 656 77 66 32

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai 5ean garaje itxia ematen da errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 635 00 72 98

3. LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai erdigunean. Oso ekonomiko. 609 44 50 86

302. EROSI

Bergara. Lokal bila gabiltza, erosteko, San Lorenzo edo Matxiategi aldean. Deitu zerbaki honetara: 605 76 32 72

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699 54 17 27

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37

Bergara. Gabonetan zehar lan egingo nuke, edozer gauzatan. 654 98 69 14

Bergara. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu zerbaki honetara: 620 43 85 40

Bergara. Neska eskalduna haurrak zaintzeko gertu edota eskola partikularrik emateko. 620 75 04 94

Debagoiena. Arrasateko 26 urteko neska arduratsua, umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 685 71 65 78

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 627 21 08 93

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu, garbiketak eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka, gauaz zein asteburuetan. Berehala asteko moduan. Deitu zerbaki honetara: 638 93 11 48

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu, sukaldari zein etxeko lanak egiten jarduteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 99 70 46

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 646 10 21 66

Debagoiena. Lan egingo nuke nagusiak zaintzen, sukalde edo jatetxean, garbiketala lanetan eta abar. 633 37 53 13

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko ikasketak dituen mutila gertu lanerako. Nagusi eta Alzheimer gaixoen zaintza, etxeko lanak egin, sukaldatu eta abarretan ondo moldatzen naiz. Debagoiengan zehar mugiteko arazo barik. Deitu zerbaki honetara: 693 72 41 66

